

"Mairuren zauriak Europako Txapelketa kolokan jarri zuen, baina buelta eman genion"

MIKEL ZUFIAURRE ESTEVEZ
ZALDIZKOA / 18-19



Ekain, Uhartan eta Olatzagutian San Migel ospakizunak izanen dira, eta Etxarrin feriak / 12-13

Mank-en jardunaldien eskutik, zaintza eredu a udal mailan eraberritzen ari diren lau esperientzia / 2-4

Arruazuko eta Sakanako hitzak idatzita dituen kaiku batekin bueltatu dira euskaltzainak / 6

Hobe bizitzeko, pertsona aktiboz osatutako Sakana bizia sustatzen ari dira / 8-9

Mank-en eta Emausko Trapuketarien arteko hitzarmena berritu egin da / 7

Olatzagutia-Urbasa eta Etxarriko Mendira Joan Etorria, bi mendi lasterketa herrikoien atarian / 17

Sakanako Bizikleta Eguna arrakastatsua, arina, polita eta oso parte hartzailea izan zen / 20



Etxarri Aranatzan dantza erresidentzia egin du Disiden.Ciak; gaur erakustaldia egingen du / 21

Zaintzaren eraldatzaileak

Zaintza, eta zaintza lanak. Herritar, eragile eta erakunde askoren agendan dauden terminoak dira. Ibarreko berdintasun planean zaintzaren gaia landu eta zaintza lanei balioa emateko beharra jasoa dago. Nafarroako Gobernuak Berdintasun Institutuak zaintzaren aldeko tokiko itunak sustatu ditu. Eta Sakanako Mankomunitateak lastailean sinatuko du. Zaintzak, eta bere ertzek, ibarrean ere interesa sortu dute. Horregatik, zaintza zer den definitzen laguntzeko, Mank-ek Sakanan ZAINDU gertutik jardunaldiak antolatu zituen irailaren 20 eta 21ean. Haren baitan lau udalen eraldaketa esperientziak azaldu ziren, hona ekarri ditugunak.



"Erabaki da zaintzaileengan fokua jartzea"

MIREN ARANGUREN ETXARTE EMAGIN ELKARTEA Eraldaketarako esperientzien berri emateko atalean, Beterri-Buruntza eskualdeko zainketen diagnostikoaren berri eman zuen

SAKANA Usurbil, Andoain eta Hernani inguruak osatzen du Beterri-Buruntza eskualdea. "Gu, bereziki Hernanin jardun gara. Herri batetik bestera kristoren alde dago". *Zaintza lanen demokratizazioerantz: Beterri-Buruntza aldeko zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamena 2020ko maiatzean aurkeztu zen.*

Zergatik egin zen zaintzari buruzko diagnostia?

Herriak garapen agentzia bat egiteko prozesuan murgilduta zeuden 2016an. Pare bat tekni-

karik enplegu sozialaren ikuspegitik hutsuneak zeudela ikusi zen. Horietako batek lotura handia zeukan zaintzarekin. Astroen lerrokatze bitxia egon zen. Mugimendu feministak bultzatuta, Emaginen ere zaintzarekin interesa pizten ari zitzaigun. Bartzelonako Udalarendako zaintzaren inguruko diagnostia egin zuten Ciutat Invisibleko kideak ezagutu genituen. Iruditu zitzaigun gurera egitea aukera bat zela. Emaginen eta teknikari horien interesekin eta Bartzelonako erreferentzia positiboekin lanean hasi ginen.

Zaintzak arlo asko hartzen du. Zer-baiti erreparatu zitzaion zehazki?

Hori zailtasun handienetakoa izan zen. Oso erraza da esatea zaintzaren inguruko diagnostiko bat egingo dugula. Baina oso gai konplexu batekin topo egin genuen. Buelta asko eman eta gero erabaki da zaintzaileengan fokua jartzea. Gure ustez garrantzitsua zen zaintzaren alorrean profesionalki eta informalki jarduten dutenen egoera ezagutzea, lehen eskutik, eta haien ahotsa kontuan hartuta. Errealitate hori jasotzen zuten oso egitasmo gutxi zeuden garai horretan. Arreta hor jarri genuen, baina bereziki adinekoen zaintzan jarduten dutenengan. Jakitun jende asko uzten genuela kanpoan, eta zaintzaren alor asko ere kanpoan uzten genituela. Potentzial politiko handiko hitza eta errealitatea da. Baina mugatu beharra zegoen.

Nola egiten da hori?

Guretako garrantzitsua zen, batetik, profesionalki jarduten zuten horien kasuan, gizarte zerbitzuen zerbitzuetan lan egiten zutenengan gerturatzea. Hau da, etxek etxeko zerbitzua, eguneko zentroak, tutoretzapeko pisuak, egoitzak eta abar. Baina, era berean, etxeko langileengana gerturatu nahi genuen: modu

"ELKARRIZKETEN LEHENENGO ONDORIOA IZAN ZEN JENDE OSO GUTXIK GALDETU DIELA EZER"

informalean, etxe barneko langile gisa bezala lan egiten dutenengan, oraindik haien egoera arautu gabe edo paperak arautu gabe zeuzkaten haiengana. Eta Hernanin etxeko langileen kooperatiba bat sortzeko prozesua abiatu zen. Gerturatu ziren horietako batzuekin lanketa bat egin zen: profesionaltasun ziurtagiria lortzeko baliabideak erraztea. Hernanin kulturartekotasuna sustatzen duen Amher elkartearengana gerturatu ziren emakumezko haiek. Taldetxo bat ziren. Guretako erraza izan zen aurreneko maila horretara iristea. Hortik jaso etxeko langileen egoera oso-oso prekarioaren berri. Azkenik, familietan zaintzen ari direnen errealitatea jaso, oso-oso gutxitan jasotzen dena, eta gizarte zerbitzuetatik ere askotan hartu-eman zuzena egoten ez dena. Horretarako Gipuzkoan dauden programa batzuk baliatu genituen. Baina langileen, egoiliarren edo dena delakoaren bidez gerturatu ginen. Elkarrizketak egin genituen. Lehenengo ondorioa: jende oso gutxi galdetu diela ezer.

Diagnostik pausoak etorri dira?

Orain begiratzen dut zer ibilbide egin dugun eta, egia esan, oso-oso modu positiboan baloratzen dut. Usurbilen, Andoain eta Hernanin prozesu oso politik abiaturik dira. Hausnarketa prozesuak herritarrekin, baina baita egitasmo zehatzak ere. Auzo zaintza programa azpimarratuko nuke. Hernanin bakardade egoeran dauden adineko pertsonen zuzen-

datuko bidelaguntza publiko komunitarioa da. Hainbat hanka ditu. Bat bidelagunak dira, eta lehenetsi zen Maitelan kooperatibako langileak izatea. Horrela etxeko langileen zirkulu itxitik beste lan ibilbide batzuetara ateratzen dira. Bestea, adineko pertsonak. Zabalduz kooperatiba hori guztia kudeatzen ari da. Eta gizarte zerbitzuak. Komunitatean ere lan bat egiten ari gara, eta herritarrek inplikatzeko ari dira, elkarrekotasun hori nolabait herrira zabaltzeko.

Herri ikuspegitik urrunduta eta eskualdekoa hartu, zergatik?

Hasieran eskualdera zabaltu genuen, baina orain herrietan zentratzen ari gara tokikotasunak kristoren potentziala duelako. Konturatu ginen Beterri-Buruntza eskualdean herri batetik bestera kristoren aldeak daudela. Ikusi genuen interesgarria zela tokian tokiko prozesuak abiatzea. Hala eta guztiz ere, orain beste puntu batean gaude. Hiru herritan egitasmoak abiatu dira. Nik uste dut egon beharko duela momentu bat eskualdera berriz ere salto egin ahal izateko, eta hainbat egitasmo eskualde mailan indartzeko. Uste dut interesgarria izango litzatekeela, proiektu pilotuez hitz egiten ari garelako, esperientziaz. Funtzionatzen duten gauzak beste herrietara eramatea inportantea da. Gainera, baliabide finituek dauzkagula kontuan hartuta, herri txikiak direla eta baliabide horiek partekatzea oso inportantea dela.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





"Bere burua birpentsatzen duen udala da Amurriokoa"

DELICIA AGUADO PELAEZ ETA PATRICIA MARTINEZ GARCIA ARADIA KOOPERATIBA

Amurrioko Udala bere jardunean zainketen ikuspegia txertatzeko proiektua garatzen ari da

SAKANA

Amurrioko Udaleko barne prozesuaren helburua da zainketen ikuspegia udal ekintza gidatuko duen zeharkako politika gisa txertatzea. Udal teknikariek batera hasi dira lanean, pertsonen eta ingurunearen zaintza kontuan izanik.

Zergatik ekin dio Amurrioko Udalak barne prozesu bati?

Patricia. 2019an sortu zen ideia. Zaintza politika, ekonomia femi-

nista eta bizitzaren jasangarritasunari buruzko prestakuntza saioak izan zituzten. Udal teknikariak asko hunkitu ziren, baita alkatea izanen zena ere. Jabetu ziren udal politikak hobetu zitezkeela, bidezkoagoak izan; barneratu zitezkeela ingurumenarekiko eta pertsonarekiko kezka. Talde motor bat eratu zuten eta berritzen hasi ziren, irizpideak txertatzen eta gauzak hobe egiteko moduz pentsatzen hasi

ziren. Burokraziak, errutinak eta halakoak geldiarazi zuten talde motorra. Gu akonpainamendu tekniko egiteko kontratatu gintuzten. Helburuak: bizitzak erdigunean jartzeak udal jardueran zer esan nahi duen pixka bat zehaztea; politika publiko baterako zaintzak zer diren zehaztea... Zaintzez aritzean burura datozkigu haurren edo adinduen zainketa... Zaintzaren ideia mugatua da hori. Amurrion zaintzaren ideia zabaldu nahi dute inguruneak eta pertsonak kontuan izanik, guztiok baldintza beretan bizitza duinak izateko bizitzarako baliabide material eta sinbolikoak jartzea; beti ere, ingurumen fisikoaren mugak kontuan izanik.

Gauza bat da udalak erabakia hartzea, bestea langileen inplikazioa.

Delicia. Momentuz taldetxo batekin ari gara: gizarte zerbitzuak, berdintasuna, herritar parte hartzea, ingurumena eta alkatea. Ingurumena berregituraketa prozesu gisa hartu da. Eta alkatetik parte hartzearena ez da ohikoa, "pisua" ematen dio. Tarte batez talde motor hori izan zen hausnarketa gehien egin zituena. Ondoren gainontzeko teknikari zabaldu genien prozesua: diagnosis egiteko elkarriketak, tailerrak, aurkezpena... Gainontzeko langileen artean zabalitzen ari gara gaur egun. Aldaketa horiek guztiak udal lan

taldeetan barne eraldaketa handia dakarte. Talde horiek lanez gainezka daude, errutina asko dituzte... Nahiko agenda estua dute, pentsatzen hasteko... Hori udal guztietan gertatzen da. Prozesuak hausnarketatik asko izan du, gauza askori buelta asko eman dizkiogu, bai teorikoak, bai praktikoa. Orain udal egituraren behe-eragileak, zabalitzen ahal egiten ari gara, haren beste ikuspegi bat izan dezaten; ez dezaten urruneko zerbait bezala ikusi. Tresna baten bidez aplikatu ahal izanen da, nahiz eta egiteko zeregin handia dugun aurretik.

Tresna diseinatzen ari zarete?

P. Bai, hausnarketa teorikoan eta praktikoa. Gu laguntzen ari gara eta ikuspegia zabaldu dezakegu, baina errealitatean ere jaisten gaituzte: honako eskumenak eta baliabideak ditugu. Oso zehaztuta dago. Azken formatua kalkulu orri bat da. Baina eraikitze dago oraindik, eta talde motorrekoak ez diren teknikarien iritzia jaso behar dugu. Egunerokoa nola dakusaten esatea nahi dugu. Ea ulertzen duten, erraz ezartzen den... Ezar-

"ZAINZAREN IDEIA ZABALDU NAHI DUTE INGURUNEAK ETA PERTSONAK KONTUAN IZANIK"

tzeko aste bat behar duen tresna bat ez duzu jarriko! Praktikaren eta teoriaren markoaren arteko orekaren bila gabiltza.

Prozesuan laguntzarik izan duzue?

D. Unibertsitateko lagunak, REAS-Euskadi... Hainbat forotan parte hartu dugu, kontrastatzeko. Prozesuak ez du aurrekaririk. Ideia eraldatzailea galdu gabe zerbait praktikoa eta erabilgarria egitea pixka bat zaila izaten ari da. Aurki dirulaguntza batekin estatuko beste udaletara zabaldu eta kontrastatu nahi dugu, tresnak eta irizpideak funtzionatzen ote duten jakiteko. Amurrioren idiosinkrasia oso markatua da. **Helburua da bere burua zaintzen duen herria izatea Amurrio?**

P. Bere burua birpentsatzen duen udala da Amurriokoa. Hobe zaintzen ikasten duen herria. Politika oso eraldatzaileak bilatu beharrean, apika ez daude puntu horretan, egiten ari direna hobetzeko neurri zuzentzaileak ezartzea da.

Zaintza ez bakarrik pertsonena, ingurumena ere.

D. Nola zaindu? Galdera aldatu genuen: nola zaintzen duzu? Udalen eskumenak eta baliabideak askotan mugatuak dira. Baina gertuen dugun administrazioa da. Teknikariek eta herritarrek eragiteko gaitasuna dugu gertuko horretatik aritzeko, ideia oso onak dituzten baina urrun ikus-



"Prestakuntza egin genuen erakusteko zertaz ari garen"

AMAIA ZALBA MARTINEZ

BERRIOZARKO UDALEKO BERDINTASUN TEKNIKARIA
Sentsibilizazio proiektua eta zainketen inguruko gogoetarako eta lanketarako gunea sortu dute

SAKANA

Bizitza merezi duten bizitzak ahalbidetzen dituzten aldaketak laguntzeko, horiek lantzeko, proiektua martxan du Berriozarko Berdintasun Zerbitzuak. Egitasmora herriko elkarte eta eragileak batu dira, eta nor berean zaintzaren ideia gauzatzen ahal egiten ari da.

Zertan datza zuen proiektua?

2017an zaintzak lantzeko nahia-ekin hasi ginen. Kanpaina puntualak egin beharrean herria eta bertako eragileak inplikatu zituen egitasmo bat sortzea pentsatu genuen. *Berriozar, zaintza ardatz; Berriozar, pueblo que cuida* sortu genuen. Hasieran, zaintzarekin harremana zuten herriko erakunde, eragile eta elkarteekin elkartu ginen. Ondoren taldea zabaldu da, edozein esparrutan landu daitekeelako zaintza, edozein zaintza dela ere. Prestakuntza saioa egin genuen

erakusteko zertaz ari garen, zer den zaintza, zer nahi genuena. Gure asmoa zen zaintzak esparru guztietan lantzea. Nahia zen bakoitzak bere esparrura bideratzea zaintzen lanketa eta hor ikusaraztea zer den zaintza, nor zaintzen duen, zaintzak baloratzea... Azken finean, ikustea zaintza ezinbestekoa dugula gure bizitzan, gure bizitzak funtzionatu ahal izateko. Hasieran 25, egun 27 eragile eta elkarte gara. Udalak plaka batzuk sortu zituen logotipoarekin eta atxiki direnen egoitzetan ikus daitezke. Horren bidez herrian zaintzarekin dagoen inplikazioa ikusarazten da.

Denetarik eragileak.

Bai, ikusi dugu zaintzak esparru guztietan landu daitezkeela. Esaterako, kiroldegia atxiki zen. Behin prestakuntza saioa eginda, zaintza kiroldegira egokitu zuten. Eta jendarte sentsibilizatzeo kanpaina egin zuten: kirol ins-

talazioak zaintzeko, eta uraren eta gasaren kontsumoaren inguruko kontzientzia hartzeko. Bakoitzak zaintzak bere esparrura bideratu ditu. Berriozarko herri zaharrean bada elkarte bat eta zaintza ingurumenari zuzenduta lantzen dute: auzolanak, herriaren zaintza, ez horrenbeste pertsonen zaintza. Beraz, denetarik dago. Oso anitza da.

Elkarteak zaintza proiektua garatzerakoan laguntza jasotzen du?

Egitasmoa Berdintasun Zerbitzuak koordinatzen du, eta aholkularitza hori badute. Urtean bitan elkartzen gara elkarte eta eragileak. Urte hasierakoan bakoitzak landu nahi dituenak proposatzen ditu. Proposatutakoari forma ematen joaten gara. Pandemiarekin eten handi bat izan zen, baina urtero elkarte horiei zuzendutako prestakuntza saioa egiten saiatzen gara.

HURRENGO ORRIALDEAN SEGITZEN DU »

« AURREKO ORRIALDETIK DATOR

Elkarrekintzak sortzen dira?

Batetik, ideia trukaketa egon daiteke. Baina, bestetik, elkarrekin egindakoak ere badaude. Esate baterako, eskolan garbiketa egiten duen enpresa publiko bat dago. Bai eskolak eta bai enpresako kideek ikusi zuten langileen eguneroko lana erraztu zitekeela garbitzaileek umeei aurkezpena egin eta hitzaldia emanez gero. Elkarlanean arituginen Berdintasun Zerbitzua, bi ikastetxeetako zuzendariak eta garbiketako enpresa. Pentsatu genuen egokia izango litzatekeela garbitzaileek gelaz gela beraiei burua aurkeztea. Esaterako, goiz batean garbitzaile bat 5. mailako gela batera joatea eta esatea: "ni Mari Carmen naiz, hemengo lan-

gilea. Zuen gela garbitzen dut egunero. Eta gustatuko litzaidake zuek jakitea lana erraztuko zenidaketela aulkiak mahaira igozten baldin badituzue. Horrela, nik 300 aulki igo beharrean, zuen laguntzarekin, garbiketa azkarrago, erosoago egiten dut, eta horrela ni zaintzen nauzue". Halako aurkezpenak egin dira 2017tik ikasturtero. Ondorioz, ume eta garbitzaileen artean harremanak sustatu dira, pasabideetan agurtzen dituzte, garbitzaileendako oso onuragarria da hori. Aldi berean, ikastetxea, patioa, garbiago eta txukunago dago. Zeren hitzalditxo horretan gela bakoitzak garbitzailearekin arau batzuk adosten ditu. Esaterako, egunero aulkiak jaso behar ditugu, materialak jasota utzi

behar ditugu... Eta bide batez lortu da ikastetxea txukunago egotea. Hor zaintzak bi zentzutan landu nahi genituen: garbitzaileek zaintzen dituzte umeak eta irakasleak, beraien espazioa egoteko garbi eta txukun egunero eta egoteko gustura; eta bide batez, bertan dauden pertsonak, bai irakasle zein ikasleek zaintzen dituzte garbitzaileak.

Aurrera begirako erronka gehiago?

Adineko pertsonen zentroaren proposamena jaso dugu: erruki komunitatea sortzea. Bidean da. Munduan barna zabaldua daude, Hego Amerikako herri askotan daude. Ez da sare bat, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoan hala dauden. Berez, bizitzaren bukaeran zaintzak lantzen dituzte. Pertsonaren bat bizitzaren

bukaeran gaixo badago, edo dena delakoa badu, berak eta bere familiak akonpainamendua izanen dute. Jatorrizko ideia hori da. Baina Berriozarren pixka bat zabaldu nahi da eta hori lantzeko lantalde txiki bat sortu da. Komunitate hori sortu nahi da, baina ez bakarrik zaintzak lantzeko edo bidelagun izateko bizi-tzaren bukaeran. Baizik eta bestelako gaiak ere lantzeko, esaterako, suizidioaren prebentzioa, doluak eta, bide batez, terapeutikoa ez den komunitate bat sortu familia edo pertsona horiei akonpainamendua egiteko. Zentroa duela lau bat urte zabaldu zuten eta bitarte horretan jendea hil da. Eta hori lantzeko beharra ikusi dute, pertsona bere bizitzaren bukaeran dagoenean, baina

baita taldea ere nola gelditzen den pertsona hori hil ondoren. Jubilotekan, esaterako, egunero joaten zen pertsona bat hiltzen denean, ondoren taldeak babes bat behar du.

Mahai gainean jarritakoak aztertu-ko dituzue.

Orain bilduko gara. Ikusiko dugu aurten zer gauza landu ditugun. Nafarroako Gobernuaren zaintzen tokiko paktua etorriko denez, aurten haren bidez jasoko dugu prestakuntza.

"TALDEA ZABALTZEN JOAN GARA, EDOZEIN ESPARRUTAN LANDU DAITEKEELAKO ZAINZA"



"Zaintza sisteman aldaketa behar dugu"

ERKUDEN ALDAZ ARROYO

GIPUZKOAKO MATIA FUNDAZIOKO KIDEA

Usurbilgo zaintza ekosistema deritzona lantzen buru-belarri ari da gizarte langilea

SAKANA

Usurbilgo Udala, Matia fundazioarekin elkarlanean, zaintza eredu berri bat eraikitzen ari da. Egungo zaintza eredu aldatzeko prozesuan herriko hainbat erakunde, elkarte, eragile, zerbitzu eta foru aldundia parte hartzen ari dira, guztien artean, zaintzaren eredu berria elkarrekin eraikitzeko.

Usurbilgo zaintza ekosistema. Ekosistema hitza entzutean, herri guztia kontuan hartzen duela pentsatu behar dugu?

Bai. Zaintza guztion pean dagoen erantzukizuna da. Zaintzak behar

ditugu gizarte bezala bizi ahal izateko. Zaintza beharrezkoa zaigu eta, beraz, elkarrekiko zaintza horretan denok gara pixka bat erantzule. Usurbilen proposatzen den aldaketa handi- netariko bat hori da. Ekosistemaren sorreraren muinean dago hau herri proiektu bat dela.

Zaintza eredu berri bat eraikitzen ari zarete.

Bizpahiru joera nagusiri erantzun nahi dio. Gizarte antolaketa nolakoa zen, den eta izanen den kontutan hartuta, egituraketa horri zaintza sistematik nola erantzuten dion hausnartuta ere, argi

ikusten da zaintza sisteman aldaketa behar dugula. Proposatzen dugun zaintza ekosistema sistemen eraldaketa bilatzen duen proposamen esperimental da. **Zeinek parte hartzen du ekosistema horretan?**

Ekosistema horren parte diren eragile guztien ordezkariak. Talde motor dago eta han ordezkariak dituzte: gizarte zerbitzuak; bizilagunak; elkarteak; zaintza beharrean dauden pertsonak; zaintza ematen duten pertsonak, bai profesionalak bai senideak; zerbitzuak, esaterako eguneko zentroa, etxez etxeko arreta eta beste; osasun alorra, koordinazio soziosanitarioa oso-oso garrantzitsua baita; udala, alkatea eta zinegotziak eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Eraldaketa sistema bezala ulertzen baldin badugu, sistemak hainbat maila desberdinekin ere harremana du. Beraz, aldundiarekin ere zerikusia dauka eta mahai horretan ere bere ordezkari bat dago.

Zer egin duzue Usurbilen?

Gai zehatz batzuk jorratzen dira, aurreko fase batean identifikazio lana egin delako. Ulertu behar dugu zaintza ekosistema baten eraketa bizia dela, prozesuak berak eramaten zaituela ondorengo pausotara. Egin genuen

"EKOSISTEMAREN SORRERAREN MUINEAN DAGO HAU HERRI PROIEKTU BAT DELA"

lehenengo pausotariko bat izan zen: nola irudikatzen dugu Usurbil zaintzaile bat? Nolakoa izan behar du? Zer behar dugu honetarako? Zer baliabide badauzkagu jada herrian? Zeintzuk falta zaizkigu? Herriaren diagnosi zabala egin genuen; herria ezagutu, herri horrek zer ulertzen duen dela zaintza, eta nola nahi duten zaintza jorratu herrian. Ardatz nagusi batzuk atera ziren. Kasu honetan pertsonak erdigunean jartzen dituen arreta eredu dago erdian. Hori da lehenengo pausua. Hortik diagnostiko zabala, lan ildo batzuk atera eta ondoren ildoak jorratzen goaz.

Usurbilen hiru maila dauzkagu, talde motorra da bat. Mahai estrategikoagoa talde txikia da, egitasmoari koherentzia ematen joaten da, ondorengo pausok jorratzen ditu, herriarekin lotu eta abar. Azkenik, talde motorrean identifikatu diren erronkak lantzen dituzte. Mailen arteko informazio trukea dago.

Zenbat urte daramazue?

Hiruzpalau. Baina udalak pauso asko eman izan ditu ekosistema eraketa prozesutik haratago.

Herriaren eragina sumatzen hasi dira?

Hasieratik ebaluazioa bidelagun dugu. Lehenengo fase horretan aldaketak sumatzen dira. Bi ekipamendu berri ireki dira herrian; lorpen zehatz eta garrantzitsuak izan dira. Zaintza azoka bat egin zen, eta herritar pila batek, eta herritik kanpoko hainbat pertsonak ere, parte hartu zuten. Inpaktu polita izan zuen. Baina

orain inplementazio fasean buru-belarri sartuta gaude eta, nik uste, hemendik aurrera oraindik gehiago sumatuko dugula. Gizarte zerbitzuak beraiei egitekoa eraldatzen ari dira: pertsonen beharrak ikustetik pertsonen bizitzak ikustera pasatzeko ibilbidean daude, metodologia berriak eta desberdinak erabiliz. Horrek zaintza beharrean dauden pertsonen eta zaintza ematen duten horien inpaktu berezia dauka. Edo etxez etxeko arreta zerbitzuarekin. Aurten buru-belarri sartuta gaude horretan. Ikerketa bat egin dugu eta ondorengo pausok identifikatu ditugu. Iruditzen zait inpaktu batzuk lortu direla, eta hemendik aurrerakoak oraindik askoz ere gehiago sumatuko direla.

Aldundiaren presentzia babesa da?

Beti defendatzen dugu zaintzan denok beharrezkoak garela. Gainera, eraketa horrek pertsona eta ekonomia ahalegina suposatzen du. Beraz, aldundiaren babesa ezinbestekoa da. Gero ere dauzkagun prozesu asko aldundiaren baitan daude. Hau da, gizarte zerbitzuetatik gauza asko eraldatu nahi izanda ere, batzuetan aldundiak duen barne funtzionamendurekin talka egiten dute zuzenean. Beraz, beraiek ere prozesu honetan sartu eta gauzen zergatia ulertzea ezinbestekoa da. Bestela, sistemaren zati txiki bat aldatzen goaz baino sistema hori sistema handiago batekin konektatua dago. Horrek ere bere bidea egin beharko luke guztiari koherentzia emateko.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO AZPIROTZ

Izarren hautsa

Begoña, lehengusina, izarren hautsa izan zinen bizigai eta izarren hautsa zara betiko. Jubilazioa ospatuta, hilabete pasatu ez zenean, albiste makurra jaso zenuen: minbizia hedatua zure gorputzean, eta hilabete pare bateko kontua izanen omen zen. Etorkizunerako proiektu bizigarri sendoak amets zenituela, zure seme-alabei, senarrari, senideei, lagunei eta mundu honi agur egin beharra. Patu madarikatua! Heriotz kupidagabe maltzurra! Nola egiten zaio aurre heriotzari, ustekabeen ate joka ari denari? Egun batetik bestera, osasuntsu egotetik gorputza erabat hondatzeko bidean sartuko denean. Gogoaren hustutasuna eta negarrak. Zergatiaren amorrua eta galderak. Hartu beharreko erabaki zail eta gogorrak. Bizigai diren minutuak sakon bizitzeko nahia, eta hil arteko atsekabe mingarriari aurre egiteko premia. Halaxe, erabaki sendoak hartuta, hurbilekoen laztan eta losintza samurrak, Basaburuko mendietako Otsolako pagoen itzalaren usain gozagarria, errekarren xuxurla jostalaria, haize finaren ukitu zoragarria, eta eguzki izpi leunen epeltasun lasaigarria. Bizitza aberatsari esker onez eta duintasunez agur esateko pena, heriotzari emandako besarkada otzana.

Hiletaren ekitaldia sinplea eta hunkigarria, zibila esaten dena, ez elizkoa. Hasteko, ahizpa zaharraren hitzak senide guzien izenean, Begoñaren bizitzaren kontakizun laburra, pertsona xumea eta zorionekoa -azpimarratuz-; ondoren, bera medikua denez eta heriotza eguneroko langaia izanik, nabarmendu zuen heriotzari

aurre egitea kontu gogorra dela, ez gaudela prestaturik, ez digitela erakutsi eta, gehientsuenok, ez omen dugu ikasi. Baina, trantze horretatik, lehenago edo geroago, pasatuko gara denok, inor ez baita hilezkor. Bizitza dugu opari, arreta eman behar ikasgai garrantzitsuari. Ondoren, akordeoiaz eta kitarrak lagunduta, Txoria Txori abestu genuen. Gero, Begoren lagun batek hitza hartuta, azaldu zuen haren izakera, bereziki pertsona onarena, injustiziekiko eta naturaren hondamenarekiko borrokalari eta sentibera. Bukatzeko, txistulariek Agur Jaun-andreak musikatuta, amaitu egin zen hileta. Begoña, gure gogoan betiko, izarren hauts bihurtu arte!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefona. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Sakanan ZAINDU gertutik

SAKANAKO MANKOMUNITATEKO ETA ALTSASUKO UDALEKO BERTINTASUN ZERBITZUAK

Sakanan ZAINDU gertutik jardunaldiak pasa berri ditugun honetan hemendik aurrerakoak Nola? Non? Noiz? galderak datozkigu burura.

Jardunaldi hauek Nafarroako Bertintasunerako Institutuak sustatutako "Zaintzen aldeko itunaren" baitan kokatuta daude. Izan ere, urte bukaerarako Sakanako Mankomunitateak eta eskualdeko zenbait erakunde eta eragilek ituna izenpetzeko konpromisoa hartu zuten.

Emakumeen eta gizonen arteko politika publikoen esparruan, Nafarroako Foru Komunitateak eta bertako toki erakundeek zainketen alde duten konpromisoa gauzatzeko itunak dira hauek. Bizitzaren jasangarritasunaren funtsezko alderdia baita berdintasun egiazkoa eta eraginkorra lortzeko bidean.

Itunaren helburua da zainketei lotutako beharrak identifikatzea eta konponbide eta proposamen komunak bilatzea eta zehaztea, zainketa-sistema unibertsal baterantz aurrera egiten jarraitzeko.

Honela, ituna sinatu aurretik eta Sakanako emakume eta gizonen arteko Bertintasunerako I. planeko "Bizitzaren jasangarritasunerako itun sozial berria" esku hartze arloari erantzunez antolatu zen ekimena. Zaintza lanak aitortzea, zaintzaren inguruko gogoeta eta kokapena egitea eta gure bailarako agendaren erdigunean kokatzea izan dute helburu.

Zertaz ari gara zaintzak erdigunean jartzea esaten dugunean?

Azken urteetan, ahoz aho saltoka darabilgun kontzeptua da zaintzarena. Ezker-eskuin aipatzen da, eta eduki politikoz hustu aurretik, era instrumentalean erabili ordez, ezinbestekoa zaigu zaintza lanen antolaketan ezkatzen diren bidegabekeria guztiak agerian uztea, eta gure gizartearen ardatz izateko bideak arakatzea.

Zaintza lanek hari asko dituzte, eta hari horietatik tiraka zenbait gai eta eraldaketarako esperientzia ezagutu genituen Lakuntzan: Euskal Herriko zenbait esperientzia, zaintzen duten eskualde eta herriak nolakoak izan behar duten eta zaintzaren pedagogia.

Jardunaldi interesgarri eta mamitsu hauen ondoren: Nolako izan behar da "Zaintzen duen Sakana"?




OBJEKTIBOTIK



Amaia Razkin @amaiaarazkin

Galdera bat eta espero ez zenuen erantzuna



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maider Gabirondo Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeider Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Kaiku bat Euskaltzaindiarendako

Nafarroa Oinez dela eta, akademiako zuzendaritzak Arruazun bilera egin zuen. Andra Mari ikastolak hartzen duen eremuko (Hiriberri Arakil eta Iturmendi arteko) udal ordezkariak harrera egin zien euskaltzainei eta, ondoren, ikastola bisitatu zuten

Alfredo Alvaro Igoa ARRUAZU

Euskaltzaindiak urtero bisitatzen du Nafarroa Oinez antolatzeaz arduratzen den ikastola. Andra Mari ikastolan bisitan izan ziren euskaltzainak joan zen ostiralean. Euskaltzain oso eta Nafarroako ordezkari Sagrario Aleman Asitzek azaldu zuenez, "Nafarroa Oinez antolatzen duen ikastola bisitatzearena 2000. urtetik egiten da. San Fermin ikastolan urteurrena izan zuten eta Euskaltzaindia gonbidatu zuten. Eta hurrengo urteetan Nafarroa Oinez antolatzen zuten ikastolek gonbidapena egiten segitu zuten. Gehienetan zuzendaritza edo batzorderen bat joan izan da". Alemanek jakinarazi zuenez, "aurten Kilometroak-ekin Errenterian izan bagara ere, halako bisitak Nafarroa Oinezekin bakar-bakarrik egiten ditugu". Halako bisitak "tokian-tokiko egoeren berri izateko" baliagarri zaizkiela ere gaineratu zuen.

Ikastola bisitatu aurretik, Euskaltzaindiko zuzendaritzak lan saioa egin zuen Arruazuko udal txeko ganbaran. "Euskaltzaindiaren egitekoak aztertze hileroko batzara egiten da. Irekia da euskaltzain oso guztiendako, nahiz eta batzuk emerituak izan (75 urtetik gorakoak). Batzar horretatik zuzendaritza ateratzen da", azaldu du Alemanek, eta zuzendaritzaren egitekoak zehaztu du: "jartzen diren egitekoak aurrera eramanez". Zuzendaritzako bileretan sei euskaltzain oso, kudeatzailea, idazkaria eta bateratzailea izaten dira. "Baina gonbidapena zabaldu da. Horrelakoetan beste euskaltzain batzuk etortzen dira. Kasu honetan nafarrak etorri dira: Jose Luis Erdozia Mauleon euskaltzain urgazlea eta Castillo Suarez Garcia, Pascual Rekalde Irigoien eta Andres Iñigo Ariztegi euskaltzain osoak". Halako bilerak Euskal Herriko lurralde guztietan egiten dituztela jakinarazi zuen Alemanek.

Adierazpenak

Behin lanak despedituta, ikastola osatzen duten hamalau herritako udaletako ordezkariak ongi etorri ofiziala egin zion Euskaltzaindiari Arruazuko udaletxean bertan. Jose Mari Satrustegi Zubeldiaren senideak ere bertan ziren. Udalen izenean Arruazuko alkate Gorka Ovejero Ganboak hartu zuen hitza. Aitortu zuen Arruazurendako ohore handia zela bigarren Euskaltzaindia herrian hartzea. Aurrekoa 2004an izan zen, Satrustegiri omenaldia egin zitzaionean. Nabarmendu zuen, batetik, Arruazu berriki Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, UEMAn, sartu berri dela. Eta, bestetik, herriko banderak *Herria eta hizkuntza* leloa duela.

Euskaltzaindiko buru Andres Urrutia Badiolak esan zuenez, "Arruazun etxean gaude, besteak beste, Euskaltzaindiaren egitekoetan eta Jose Mari Satrustegiren itzala hortxe presente dagoelako. Hura izan zen euskaltzainen artean sutsuenetarikoa, eta atzetik etorri ginen belau-naldiendako eredugarri". Urrutiak gaineratu zuenez, "hark argi erakutsi zigun Euskaltzaindia ez zela bakarrik noizean behin elkartzeko eta kontu kontari ibiltzeko toki bat, lan egiteko baizik. Lan egiteko euskararen aitzinamenduan".

Banderaren leloari helduz, Urrutiak gaineratu zuenez, "herria eta hizkuntza, hori da ehun urtetan egin duguna eta egiteko asmoa duguna. Hori alferrikako lana litzateke ez balitz egonen herri euskalduna eta herri horrek bere hizkuntzari eutsiko ez balio. Herriak ematen diguna jasotzen dugu, sailkatu eta gero herriari bueltatzen diogu. Herriak ematen digun hori gaurko gizartearen arabera baliatzen dugu, herri honek dituen gaurkotazuneko premiak (komunikatzeko, lan



Pilar Satrustegik Andres Urrutiari herriko hitzak idatziak zituen kaikua eman zion.



Euskaltzainen, ikastolako eta udal ordezkarien talde argazkia Arruazun.

egiteko eta abarretarako) gure hizkuntzaren bitartez egin ahal izateko".

Gaurkotazunari ez zion ixkin egin Urrutiak eta Madrilgo eta Bruselako Parlamentuetan eskara ofiziala izateko ekimenen inguruan aritu zen. "Izan dadila, pauso handia da. Baina ondoren, egunerokotasunean, hori egunero bete egin behar da".

Opariak eta bisita

Herriari eta bertako euskarari buruzko libururik ez dutenez, udalak Pilar Satrustegi Zubeldiaren eskutik, kaiku bat oparitu zion Euskaltzaindiari. "Herria artzaintza eta lehen sektorearekin oso lotuta egon da. Kaikuan herriko hitzak jarri ditugu, batzuk Sakanan erabiltzen direnak, eta beste batzuk bakarrik, ustez, Arruazun". Euskaltzain guztiak Idiazabal jatorri izendapeneko gazta banarekin joan ziren etxera. Euskaltzaindiaren izenean

Urrutiak eta Alemanek udal ordezkariari akademiaren urteurrenaren harira argitaratutako liburua oparitu zieten.

Arruazutik ikastolaren instalazioak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten, baita irakasle eta ikasleekin hizketazko aukera izan ere. Taldeka antolaturik, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei egin zieten bisita. Ikasle txikien naturaltasunari esker eta helduagoen zorrotzotasunari esker elkarrizketa politikak sortu ziren. "Oso polita da, eta interesgarria da hurrek egiten dituzten galderak. Batzuetan izaten diren usteak hausten ditu". Bisitaren akabean ikasleek euskaltzain bakoitzari haritz kimu bana oparitu zioten. Euskaltzainek gustuz hartu zituzten, eta aurreratu zuten Donostiako egoitzan landutako dituztela, Oinez Basoaren luzapen gisa.

ZERGATIK ATZERATZEN DA HAURREN HIZKETA? ZER EGIN DEZAKEGU HORREN AURREAN?

HITZALDIA

Urriaren 17an
18:00etan

Altsasuko Iortia kultur gunean (euskaraz)

Urriaren 24an
18:00etan

Olaztikoko kultur etxean (gaztelaniaz)

Familiei eta hezkuntzako profesionali zuzenduta

Izen-emateak euskara1@sakana-mank.eus helbidera mezua bidaliz

Mank



Sakanako Mankomunitateko eta Emausko Trapuketariak fundazioko ordezkariak hitzarmena sinatu ondoren. UTZITAKOIA

Emausko Trapuketariekin kontratua berrituta

Fundazioa tamaina handikoak, etxetresna elektriko eta elektronikoak eta erabilitako arropa, oinetakoak eta bestelako ehunak biltzeaz arduratzen da. Etxean behar ez direnak jasotzeko zerbitzua dohainik da; eskatzeko 948 464 867 telefonora hots egin

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak Emausko Trapuketariak fundazioaren proiektuarekin eta gauzatzen duen gizarte ekintzarekin duen konpromisoa berritu zuen irailaren 1ean, bi erakundeetako ordezkariak kontratu berria sinatu baitzuten. Hitzartutakoaren arabera fundazioko langileek Sakanan tamaina handiko objektuak (altzariak, etxetresna elektrikoak eta beste) eta erabilitako arropa, oinetakoak eta bestelako ehunak jasoko dituzte. Lan horregatik 104.551,2 euro (BEZik gabe) urteko jasoko ditu fundazioak. Kontratua bost urtez luzatu daiteke gehienez, 522.756 euroko kopurua osatuz.

Fundazioko langileen bilketa zerbitzua ibarreko 15 udalerrietan egiten da, baita herriguneeetatik aparte dauden etxeetan ere. Haiek dira herrietan dauden 29 edukiontzietatik arropa jasotzen dutenak. Gainera, Emausko Trapuketariak Arbizu eta Altsasuko garbiguneeetatik ere jasoko di-

tuzte jaso beharrekoak. Irurtzungo garbigunea egiten denean, hangoak ere eramane dituzte.

Zerbitzuaz

Etxean behar ez diren altzariak, etxetresna elektriko handiak, ordenagailuak, arropa... Hala koren bat kendu nahi duenak 948 464 867 telefonora hots egin eta etxez etxeko bilketa zerbitzua eska dezake. Zehatz-mehatz esan behar da zer jaso behar duten trapuketariak. Ondoren, Emausko Trapuketariak telefonoz hots eginen diote eskatzaileari, gauzak jasotzeko eguna eta ordua adosteko. Trapuketariekin bilketa eguna zehaztuta, etxean ezin bada egon, portalean edo portxean utzi daitezke gauzak

"ETXEAN JASOTZEKO ZERBITZUA ESKATU ETA BILKETA, GEHIENEZ, 7 EGUNETAN EGITEN DA"

goiz horretan, beti ere, bizilagunei oztoporik egin gabe. Objektuak ez dira kalean edo bide publikoan utzi behar.

Trapuketariak etxetik pasako dira esandakoa jasotzera. Mankeko Hondakin Zerbitzuko teknikari Olatz Garde Mazkianek azpimarratu duenez, "zerbitzua dohainik da". Jakinarazi duenez, "eskaera egin eta bilketa, gehienez, 7 egunetan egiten da".

Emausko Trapuketariak ibarrean 4.663 tona bildu zituzten joan zen urtean; "2022ko bilketa-datuak ikusita, esan dezakegu sakandarrek asko eskatu dutela zerbitzua", adierazi du Gardek. Joan zen urtean jasotakoetatik tamaina handikoak 209,61 tona izan ziren, ehungintzakoak 149,04 tona, etxetresna elektriko eta elektronikoak 83,73 tona eta bestelakoak 31 tona. Mank-ek gaztigatu duenez, "datu aipagarria da bilketa horien %82,57ri balioa eman zaiola, eta %14,43 baino ez dela errefusatu", nabarmendu du.



UTZUBARTXOREN TXOKOA

Kaixo! Utzubartxo naiz, urtero martxo aldera Arbizuko UtzubarEKOgunera hurbiltzen naizen sai edo putre zuria. Sakanan hilabete batzuk pasatzen ditudanez, tarte horretan Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuko mezulari bihurtuko naiz.

Askotan hitz egin dugu berrerabiltzearen garrantziaz, baina etxetresna bat izorratzen denean eta konpontzen ez dakigunean, zer egin dezakegu? Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak Konponketa-kafea izeneko tailerrak antolatuko ditu urrian zehar. Lantegi horien bidez Sakanako hainbat herritan aukera egonen da tresna, jostailu, altzari eta bestelakoak konpontzeko eta konpontzen ikasteko. Askotan konponbide erraza duten tresnak hondakin bihurtzen dira. Hori ekiditeko eraman konpontzeko duzun hori konponketa-kafe batera. Egon adi argitaratuko diren datei. Une atsegina igaroko dugu!

Era berean, arropei bigarren aukera bat emateko arropa-tailerrak antolatuko dira. Erabiltzen ez dugun arroparekin poltsak, diru-zorroak eta abar sortzeko aukera egongo da bertan, eta, horretaz aparte, botoiak josten eta arropa konpontzen ikasiko dugu. Nahi duenak josteko makina erabiltzeko aukera izango du.

Halaber, arroparen berrerabilpena bultzatzeko helburuarekin, trukea egiteko saioak antolatuko ditugu Sakanako hainbat herritan. Bertan norberak erabiltzen ez dituen baina egoera onean dauden jantziak eraman eta beste batzuekin trukatzeko aukera izango da. Adi! Laster emango ditugu datak jakitera!

Mank
s a k a n a



Utzubartxoren Txokoa Nafarroako Nafarroako Hondakin Funttsak finantziatu du. Hondakin Funttsa bereizi ez diren hondakinak zabortegian isurtzeagatik ordaintzen den zerga baten bitartez jasotako diruarekin hornitzen da.



Iturmendiko kudeaketa batzordea 2020an hasi zen lanean. ARTXIBOA

Bi herrietarako hauteskunde deialdia egin dute

Zuhatzuk kontzejua eta Iturmendik udala berri gabe dituzte. Hauteskundeak azaroaren 26an lirateke

ZUHATZU / ITURMENDI

Maiatzaren 28an tokiko erakundeak berritzeko hautagaitzarik ez zen aurkeztu ez Zuhatzun ezta Iturmendin. Hori dela eta, Zuhatzuko Kontzejuan eta Iturmendiko Udalan aurreko legegintzaldiko hautetsiak jarraitzen dute lanean. Zuhatzuko Kontzejuko presidentea Juan Pedro Arregi Sarasa da, eta Iturmendiko alkatea, berriz, Imanol Arbizu Perpiña. Hautagaitzarik aurkeztuz gero, zuhatzuarrek eta iturmendiarrek azaroaren 26an botoa emateko aukera izanen dute. Zuhatzuk 50 biztanle baino gutxiago dituenez, hautagairik aurkeztuz gero, kontzeju irekiko presidentea aukeratuko lukete. Iturmendiren kasuan, berriz, alkatea eta sei zinegotzi. 2019ko udal hauteskundeetako bi deialdietan ez zen hautagaitzarik izan Iturmendin, eta herritar talde batek bere burua aurkeztu zuen

kudeaketa batzordea osatzeko. Haiek daude udalean gaur egun.

Nafarroako Gobernua arduratzen da kontzejuetako hauteskundeak deitzeaz. Nafarroan hauteskunde partzialen deialdian 77 kontzejuetako hautetsiak aukeratzeko deialdia egin da, tartean, esan bezala, Zuhatzu. Espainiako Gobernuak udal hauteskunde partzialak deitu ditu Nafarroako 38 udalerritan, tartean Iturmendin. Araudiaren arabera, hauteskunde kanpaina azaroaren 10ean, ostiralarekin, hasiko da eta azaroaren 24ko gauerdian despedituko da, ostiralarekin.

Maiatzaren 28an udal eta kontzeju hauteskundeetatik ateratako 14 udalak eta 14 kontzejuak garagarriaren 17an berri ziren. Udaletan guztira 114 hautetsik bere ardura hartu zuten egun horretan. Kontzejuetan, berriz, 54 sakandar daude lanean.

"Aktiboak ez direnengana iritsi nahi genuen"

SARA SALAZAR, AMAIA GERRIKAGOITIA ETA DANIEL ECHAVARRI

ALTSASUKO ETA SAKANAKO KIROL TEKNIKARIAK ETA KIROL ORIENTATZAILEA

Jarduera Fisikoko Orientazio Zerbitzuaren erabiltzaileak 80 bat dira, gehienak emakumezkoak. Onura fisiko eta sozialak, bizi kalitatea dakarren zerbitzuaren berri eman dute

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Sakandarrak aktiboagoak bihurtzeko helburuz, duela hiru urte Sakanako Jarduera Fisikoko Orientazio Zerbitzua martxan jarri zen. Zerbitzua sedentarioak direnei, gaitz kronikoak dituztenei eta bazterte arriskuan dauden pertsonen zuzenduta dago. Zerbitzuaren sustatzaileek kezka ikusten dute egungo "sedentarismo tasa oso altua". Gainera, "obesitatea gero eta ohikoagoa da. Eta hori biztanleria ez aktibo baten ondorioa baino ez da". Ziurtatu dutenez, jarduera fisiko egiteak "bizi kalitatean eta menpekotasuna atzerapenean onura positiboak ditu".

Zerbitzua Etxarri Aranazko osasun eskualdean (Lakuntza eta Urdiain bitarteko herriak hartzen ditu) abiatu zen. Ondoren, Irurtzungo eskualdera zabaldu zen (Arakil eta Arruazu artekoak). "Eta langileek posible izan zuten, 2022an, Altsasuko osasun eskualdera zabaldu zen (Altsasu eta Ziordia artekoak). Ordura arte, eskualdeko profesionalak gauezka zeudelako".

Zerbitzuak kirol orientatzaileekin aurrez aurreko kontsultak eskaintzen ditu. Baina baita osasunarendako onuragarriak diren ordubeteko paseoak; inda-

rra, oreka eta malgutasuna lantzeko gidatutako jarduera fisiko saioak; nolabaiteko mendekotasuna duten adinekoen eguneroko jarduerak hobetzeko helburuz ematen diren hausturak ekiditeko klaseak, funtzio gaitasuna hobetuz, makaltzea eta hausturak ekiditen dituen, eta, azkenik, bigarren mailako mendekotasuna duten eta etxeratuta dauden pertsona eta haien zaintzaileen zuzendutako ariketa fisikoak. Jarduera gehienak kalean egiten dira, eguraldiak laguntzen ez duenean barruan, baina beti talde txikitik. Zerbitzua udalekin elkarlanean egiten da, herri bakoitzean ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko. Orain arte doakoa izan da zerbitzua, baina orain "kantitate sinboliko bat ordaindu beharko da. Zerbitzua udalen eta dirulaguntzen ekarpenen menpe baitago. Ez dugu halakorik nahi".

Garbi dago jarduera fisikoak onurak ekartzen dituela?

"EZ DA BAKARRIK ARIKETA FISIKOA EGITEA, BAIZIK ETA BIZITZA MODU AKTIBOAN HARTZEA"

Sara. Uste dugu baietz. Nik probatu dut, eta gustatzen zait gainera ariketa fisiko egitea. Ez da bakarrik ariketa fisiko egitea, baizik eta bizitza modu aktiboan hartzea. Hau da, etxera autoz joan ordez oinez joatea, egunero eskaillerak igotzea, edo pisuak hartzea... Hori da aktibo izatea. Ez bakarrik gorputza, baita burua ere: irakurri, musika jo eta abar. Mantenduz gero, gauzak ez dira galtzen. Hor dago kokka.

Aktibo izateak fisikoak bai, baina beste onura batzuk ere baditu?

Amaya. Bai. Kirolak balio digu elkarrekin egoteko, lagun batzuk egiteko, harremanak egiteko... Beraz, gizarte eta buruko onurak ditu, bai.

Hori guztia adin guztietarako?

Daniel. Hala da, ariketa fisiko egiten badute pertsona guztiek onura ikusten dute. Gorputz osasuntsu bat baldin badaukazu, burua ere hala izanen duzu, eta aldrebes. Azkenean, bien arteko oreka behar duzu; buru osasuna ongi baduzu, gorputza ere hortik joango da. Eta gauzak modu desberdinean ikusten dira.

Orientazio zerbitzu bat beharrezkoa zen?

A. Guk urte asko daramagu kirol jarduerak antolatzen. Ikusi dugu jende kopuru batengana iristen

Gure ogiak ezagutzen dituzu, orain gozotegia deskubritu

678 323 403
• Iruña Hiribidea, 48 •

948 468 026
• Zumalakarregi Plaza, 3 •

670 389 017
• San Juan Kalea, 50 •

948 562 185
• Otadiko Kristo Deuna, 19 •

Amaya

OKINDEGIA

... eta askoz gehiago eta asko zuretzat pentsatuta.

ALTSASU



Aitor Larraza, Amaia Erramuzpe, Sara Salazar, Daniel Echavarrri, Alodia Alvaro eta Amaia Gerrikagoitia.

garela: kirolariengana. Baina zer gertatzen da kirola egiten ez duten pertsonekin? Aktiboak ez diren pertsonengana iritsi nahi genuen. Normalean lan egiten dugun kirol esparruetatik atera gara gizarte guztira zuzentzeko. Horrela denoi aukera ematen diegu.

Ariketa fisikoaren aurrean jendea balduta zegoelako orientazio zerbitzu bat behar zen?

S. Galduta ez. Baina osasun etxearen papera hor dago. Medikuek eta ariketa fisikoa edo programak daude. Haien artean orientatzailea bitartekaria da. Batzuk badakite zer eskaintza dagoen eta etortzen dira. Baina badago jende asko ez dakiena ariketa fisikoa egiteak zer onura dituen, edo nora jo dezakeen aholku eske. Beste batzuk pentsa dezakete adinekoak direla eta ez daudela ariketa fisikoa egiteko prest. Medikua-rengana joan eta hark kirol errezeta emanen dio. Pertsona hori Danielekin, orientatzailearekin, egonen da. Plangintza bat jarri eta zentratuta zaude: nola egin eta zer egin. Pauso hori ematea garrantzitsua eta beharrezkoa da.

Kirol errezeta. Osasun etxeekin elkarlanean?

A. Sakanako hiru osasun etxeekin hitzarmena dugu. Haien bideratze lan hori oso beharrezkoa da gure zerbitzurako. Haiek ere beharrezkoa eta garrantzitsua ikusten dute. Azken batean, botikak pixka bat gutxiago hartu

eta gorputza gehiago mugitu. Bai, medikuek oso paper garrantzitsua dute. Hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin ere harremanetan gaude, bazterte arriskuan dauden pertsona eta familiak nolabait laguntzeko. Bestetik, hezkuntza komunitatearekin harremanetan egoteak garrantzia handia du guretako, gazteak etorkizuna baitira. Horregatik, lehiarik gabe, nerabeek hainbat kirol probatzeko eskaintza martxan jarri genuen.

Medikuek kirol errezeta ematen du eta zuregana iristen dira.

D. Hori da. Niri bideratzen dizkidate paziente horiek. Medikuek nirekin egoteko hitzordua emanen diete. Nirekin Irurtzun, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutiko osasun etxeetako kontsultetan egonen dira.

Demagun medikuek zurekin hitzordua eman didala. Hitzordura agertu, eta zer?

"GORPUTZ OSASUNTSU BAT BALDIN BADAUKAZU, BURUA ERE HALA IZANEN DUZU"

"BADAGO JENDE ASKO EZ DAKIENA ARIKETA FISIKOA EGITEAK ZER ONURA DITUEN"

D. Lehenik eta behin, etortzen den pertsona ezagutzea gustatzen zait; bere arazoak zeintzuk diren ikusteko eta ulertzeko. Behin hori jakinda, bere maila fisikoa kalkulatzeko. Test fisiko batzuk pasatzen dizkiet eta horrekin haien egoera ikusten dut: ahul dagoen, ahultzeko bidean edo sendo dagoen. Hori jakinda, planifikazioa egiten dut.

Planifikazio hori zer da bakarka egiteko? Edo taldean?

D. Jende askok bakarka egin nahi du ariketa fisikoa. Beste batzuk sozialagoak dira eta nahiago dute herriko jardueretan parte hartzea. Hori kontuan izanda, kasuaren arabera, guztiak desberdinak baitira.

Jarraipena egiten diezu? Bi aste barru etorri edo halakorik esaten diezu?

D. Jarraipena izatea onena da, prozesu guztia eraginkorra den edo ez ikusteko. Jarraipena egitea derrigorrezkoa da, bai. Indibidualizazioa onena da.

Jarraipen hori medikuekin elkarlanean egiten duzue?

D. Bai, Askotan medikuekin eta erizainarekin hitz egiten dut. Haiek aipatzen didate zer moduz dauden pazienteak, hobetu duten, zer moduz ikusten duten euren burua. Eta, ondoren, nirekin egoten dira, nik nire ikuspegia izateko.

Hiru urteko ibilbidea. Zer moduz?

D. Momentuz, dena bikain. Par-taideak oso gustura daude. Ni baita ere. Gainera, hoberena da hobekuntzak ikusten ditugula.

Bai beraiek bai beraien senideek edo ingurukoek. Denek ikusten dituzte hobekuntzak haien bizitzetan. Bai pazienteak bai zaintzaileek ariketa fisikoa egin behar dute.

Egitasmoa aurrera ateratzeko, elkarlana.

A. Bai, sare bat daukagu. Bertan daude: Berdintasun Zerbitzuak, Euskara Zerbitzua, Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta hezkuntza arloa. Sarean lanean gaude hainbat arlotako profesionalak.

Zer egin behar da zerbitzua erabiltzeko?

S. Medikuek orientatzailearengana joan behar dela esaten du, Danielengana. Berak banakako programa jarri edo dugun eskaintzaren berri emanen dio. Altsasun,

biztanleria handia denez, honekin lotutako hainbat programa daukagu. Probatu dutenek erraz ikusi dute zer lortzen den.

Emaitzak, orokorrean, ikusten dira, eta jendea pozik dago programarekin. Helburua ez da beti talde honetan gelditzea, baizik eta daukagun eskaintza zabalagoan sartzea, eta gero eta jende gehiago pasatzea talde berezi honetatik.

Izango litzateke kirol jarduerarako sarrera bat?

S. Helburua da gure bizitzan ariketa fisikoa bizimodu bezala sartzea. Ez da kirola egiten dut edo ez. Autoa erabili ordez oinez ibiliko naiz herrian... Behar bada hemendik ez dakit zenbat urtetara ez dugu hainbeste hitz egin behar ariketaz, osoak gare-lako. Horrela ikusi behar dugu bizitza.

'Leioako bosten' auzia epaiaren zain gelditu da

Fiskaltzak zigor eskaerak jaitsi zituen eta ez dute kartzelara joan beharko. Bostek "eskubide politikoen kontrako eraso hau gogor" salatu dute. Aldi berean, auzibidean zehar jasotako babes eskertu dute

SAKANA

Bilboko auzitegian Leioako bostak epaitu zituzten asteartean, tartean Beñat Zelaia Mazkianan altsasuarra zegoen. Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean 2016an izandako istilu batzuetan atxilotu ondoren etorri da bosten kontrako epaiketa. Fiskaltzak eta akusazio partikularrak hasiera batean auzipetuendako 39,5 urte eta erdiko espetxe zigorra eta 40.000 euroko isun eskaera egin zuen. Epaietan auzipetuek akusazioak onartu dituzte. Ondorioz, fiskaltzak zigor eskaerak jaitsi ditu: laurendako urte beteko espetxe zigorra eskatu ditu desordena publikoengatik eta bosgarrenarendako urte erdikoa atentatugatik. Lesio eta kalteengatik eskatutako isuna 35.000 euro ingurukoa da.

Akusatuen defentsa ados agertu zen fiskaltzak egindako eskaerarekin, gazteek espetxera sartu behar ez izatea ekarriko luke-



Auzipetuen askatasuna eskatzen.

lako. Auzia epaiaren zain gelditu da. Auzipetuek epaietaren ondoren ohar bidez adierazi zuten, "espetxeratze arriskuan zeuden bi kideek azkenean kartzelara joan beharko ez duten arren, eskubide politikoen kon-

trako eraso hau gogor salatu beharrean gaude". Zazpi urte iraun duen auzibideari kritika egin zioten.

Bostek azpimarratu dutenez, "errepresioa salatzen zuen mobilizazio batean parte hartzeagatik espetxe zigorrak ezarriko zaizkigu eta milaka euroko isunei aurre egin beharko diegu". Boskoteak gehitu duenez, "estatu kapitalistak militantzia politikoa eta protestarako eskubidea modu errepresiboan zigortzen dituela". Atzera ere, nabarmendu dute "EHUren erantzukizuna zuzena da. Berak sortutako testuinguru errepresibo bati erantzuteko egin genuen 2016ko mobilizazioa". Jasotako babes eskertzearekin batera, bosten iritiz, "militantzia politikorako baldintza eta protestarako eskubidea defendatu eta hedatzeko ezinbestekoa da errepresioa salatuko duen indar bat sortzea, honi aurre egingo dion antolakuntzarekin batera".

Etxarri Aranazko Omniao langileek onurak lortu dituzte

ELA sindikatuak jakinarazi duenez, Industrial de Armaduras Omnia enpresako zuzendaritzak eta enpresa batzordeak akordioa itxi dute. Ondorioz, irailaren 29tik, ostiraletik aurrera deituta zegoen langileen mugagabeko greba bertan behera gelditu da. ELAko Sakanako arduradun Gorka Viergek jakinarazi duenez, "Omniao langileek Nafarroako metalaren sektoreko hitzarmenaren gainetik urtean 1.200 euroko osagarria lortu dute, ELAko greba mugagabea deitu ondoren. Gainera, beste hobekuntza batzuk ere lortu dituzte". ELAko Sakanako arduradunak jakinarazi duenez, "beti negoziatzen dugu metaleko hitzarmenaren gainetik. Baina aurten enpresa egokortu egin zen, hartu-emanek ez zuten askorik ematen eta garagarrilean negoziazioak hautsi ziren. Orain, greba deialdia egin zegoenean, enpresak eskaintza ona egin eta langileen gehien-goak onartu zuen".

Viergek gaineratu duenez, "enpresa akordio horrekin Omniao 24 langileek beren aldarrikapenen zati handi bat lortu dute, eta erakutsi dute mobilizazioa eta greba direla akordio onak lortzeko modu bakarra". ELAkoak balioetsi du "langileen batasunak eta grebak balio dutela jendearen lan baldintzak hobetzeko".

Osasungintza publikoaren aldeko topaketa egin zen

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Osasun Publikoaren aldeko herri-plataformetako ordezkariak, sakandarrak barne, Araian bilera egin zuten larunbatean. Helburua zen bien arteko koordinazioa bultzatzea eta bi lurraldeetako gobernuen osasun-sistema publikoa pribatizatzeko estrategien aurretik erantzun mobilizatzaileak gaitzea. Topaketaren ondoren salatu egin zuten bi gobernuak "itxaron zereendak murrizteko sistema publikoko pazienteak osasun negozio pribatuetara masiboki bideratzeko" duten asmoa, "egiturazko irtenbide bat ez delako, egungo zenbakiak makillatzeko eta diru publiko kopuru handiak esku pribatuetara bideratzeko soilik balio duelako". Plataformek egiturazko aldaketak eskatzen dituzte, zuzenean osasun sistema publikoa eta, bereziki, Lehen Mailako Osasun Arreta eta Osasun Publikoa indartu, zabaldu eta hobetzeko. Bileratik atera zuten ondorio garrantzitsuenetako bat izan zen "herriarren mobilizazio iraunkor baten beharra, bide pribatizatzailea eta osasun publikoaren desegitea geldiarazteko tresna gisa". Herriarrek eskatzen duten Osasun Publikoaren ereduari buruz hausnartu zuten, baita egun duen egoerari buruz ere.

DUELA 25 URTE...



Satrustegiko taberna

Satrustegiko gazteek herriko taberna zabaltzea erabaki zuten. Aurretik izan zuten halakorik herrian, baina urteetan itxita eta inolako erabilerarik gabe egon zen. Herriko festetarako zabaltzen zen bakarrik, urtean behin. Taberna berriro zabaltzeko asmoarekin, gazteek hainbat konponketa egin zituzten: bainugela eta barra egin, teilatua, paretak margotu. Ilusioz ari ziren gazteak lanean, bi hila-beteren buruan Astamendi elkarteak ateak zabaltzea espero zuten.

ZURE PUBLIZITATEA HEMEN



Informazio gehiago:
948 564 275 | 661 523 245
publ@guaixe.eus
guaixe.eus/publizitatea/



Begiratu noiz dāgokizun

UMETOKI-LEPOKO MINBIZIA
GARAIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA



BEATRIZ
53 URTE



IZASKUN
64 URTE



CHAIMAE
38 URTE



OLVIA
40 URTE

35, 40, 45, 50, 55, 60 edo 65 urte badituzu, begiratzeko unea da.
Umetoki-lepoko minbiziari aurrea har dakiok. Begiratu. Zaindu.



FESTAK

EKAI

SAN MIGEL FESTAK

IRAILAK 29 Ostirala

21:00 Txistorra-jana, elkartean.

IRAILAK 30 Larunbata

14:30 Paella jana, elkartean.

16:30 Mus txapelketa.

20:00 Herri afaria, elkartean.

00:30-04:00 Dantzaldia DJ-ren musikarekin.

URRIAK 1 Igandea

11:45 Meza.

12:45 Otamena, eliz atarian.

18:00 Mariatxi bikotea.

19:30 Txokolate jana.

UHARTE ARAKIL

SAN MIGEL FESTAK

IRAILAK 29 Ostirala

12:00 Meza.

14:30 Zikero bazkari herrikoia.

UAGAK antolatuta.

16:30 Frontenis txapelketako finala.

18:00 Txupinazoa eta buruhandiak eta erraldoiak.

20:00 Auzatea eta Play back.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30-04:00 Trikidantz taldearekin musika plazan.

IRAILAK 30 Larunbata

12:00 Buruhandiak eta erraldoiak.

13:00 Auzatea.

14:30 Paellada (ez lehiakorra) eta jubilatuen bazkaria.

18:00 Helduentzako jolasak herritik eta herriarentzat!

19:00 Buruhandiak.

20:00 Auzatea.

20:00-22:00 Bidean taldearekin musika plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

22:30-00:30 Eztanda txaranga.

UAGAK antolatuta.

00:30-04:00 Zutik taldearekin musika plazan.

URRIAK 1 Igandea

12:00 Buruhandiak eta erraldoiak.

13:00 Auzatea.

16:00 Levelibular zirko tailerra.

17:30 Txokolatada.

18:00 Japoniar bonbak, pilotalekuan.

Pilota partiduak:

Kadeteak:

Loza – Oier Huarte / Yaben – Zabala Seniorrak:

Olarthea – Lazkoz / Ongai – Azpiroz

19:00 Buruhandiak.

20:00 Auzatea.

20:00-22:00 Musutruk taldearekin musika plazan.

22:00 Zezensuzkoa.

ETXARRI ARANATZ

FERIAK

IRAILAK 29 Ostirala

20:00 Pintxopotea eta sukaldearen mustutzea, gazteteak antolatuta.

00:00 DJ Deabru, gazteteak antolatuta.

IRAILAK 30 Larunbata

12:00 Etxarriko erraldoi eta buruhandien konpartsa.

16:30-19:00 Bikeshow: umeentzako zirkuitua eta erakustaldia.

17:00 Talo tailerra,

Saralegitarrekin.

16:00-20:00 Etxarriko animalien erakusketa.

18:30 Kalaska proiektuaren

aurkezpena: Etxarriko hiltegia

bizirik, tokiko elikadura baten alde.



UTZITAKOIA

EGIARRETA Festetan herri bazkariak, afariak, otamenak, dantzaldiak, etxez etxeko erronda, lehiaketak, haurrentzako jolasak eta beste izan dira.

19:30 Auzatea Karriestu elkartearen eskutik.

20:00 Salbea, elizak antolatuta. Etxera elkarretaratzea, Sarek eta Etxeratek deituta.

20:30-22:00 Trikidantz taldearekin dantzaldia.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30-04:00 Trikidantz taldearekin dantzaldia.

URRIAK 1 Igandea

10:00-14:00 Ekoizle eta artisauen azoka.

10:30 Meyetzan sarrera korrikalariak animatzera.

Gazteteak antolatuta.

11:00 XLVIII. Mendira Joan Etorria, Udaberri Elkartek antolatuta.

Sakanako Artzaien XIX. Gazta Txapelketa.

11:15 Auzatea Larrañeta

elkartearen eskutik.

13:00 Etxarri Kantuz, herrian

zehir.

Artisauak eta ekoizleak ferietan

Etxarri Aranazko ferietan ezia, Erabili arropa postua, Larruzko eskuak, Mouxuka haurren arropa, kristala saltzen duen El txoko de Naro, egurra lantzen duten Hermanos Orta, El gantxillo de Mari, Otero pilotagilea, Zapata-ri, Txus Guruzeta bitxiak, Idoia Gabantxoren arropa, Arrate saskigilea, Kapitalilua serigrafia, Aguedaren bisuteria, Encueros Larrutan eta Maider Mendinue-taren bitxiak artisauak egonen dira, Nafarroa Oinezaren postua-ekin batera.

Aritzurengego tienduka, Ana Sabando, Legarbeco barazkiak, Sustrai gazta, Joxan Goldaraz ahuntz gazta, Jeingenekoa, Berrain gaztandegia, Albi gaztandegia, Erlan Lakabe, Lorentxo



ARTXIBOIA

txerrikiak, Mendiko upategia eta Olo ardi gazta freskoa ekoizleak ere izanen dira bertan.

BIKAIN GARAJEA



Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila

948 460 037 Arbizu

FLORES





Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra.


PORTUKO






Ongi pasa ferietan!

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988



GUAIXE
618 882 675





UTZITAKOA

ERGOIENA Unanuk Ergoienako Egunaren bosgarren edizioa hartu zuen. Ergoendarren arteko harremanak sustatu eta sendotzeko sortutako egunean kirol lehiak eta herri bazkaria izan ziren.

18:00 Pilota partidak, Euskalerriri pilotalekuan:

Emakumeak:
Mendiburu - Aldaregia O. R. / Larramendi - Etxekolonea

Gizonezkoak:
Bakaikoa - Ugartemendia / Alderdi II - Eskiroz

18:30 - 21:00 DJ Anai musika eta animazioa.

21:00 Zezensuzkoa.

OLAZTI

SAN MIGEL FESTAK

IRAILAK 29 Ostirala

19:00 Txupinazoa.
Erraldoiak eta buruhandiak.
La Cigarra txaranga, kultur etxean.
20:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.
Banaketa, San Migel plazan.
20:00-22:00 DJ Raizti musika, San Migel plazan.
22:00 Herri afaria, gaztetxean.
Maisuenea Gaztetxeak antolatuta.
22:30 DJ Bull-en saioa, Barandi tabernan.
23:30 Kontzertua: Algoritmotik at!, Arrixku eta Mandroll, Maisuenean Gaztetxeak antolatuta, gaztetxean.

IRAILAK 30 Larunbata

09:00 Dianak Olatziko eta Ziordiko koruekin.
10:00 Olatzagutia – Urbasa XV. Mendi lasterketa, San Migel plazatik.
11:00 Haur lasterketak, San Migel plazan.
Sutegi taldeak antolatuta udalaren laguntzarekin
Jolas parkea, San Migel plazan

(eguraldi txarrarekin udal pilotalekuan).

13:30 Olatzagutia – Urbasa XV. Mendi lasterketako sari banaketa, San Migel plazan.

14:30 Herri bazkaria, Vicente Argomaniz plazan (eguraldi txarrarekin Erburua kiroldegian).

Iñigo Aritza ikastolak antolatuta udalaren laguntzarekin.

18:00 Etorkezuna euskal dantza taldea, futbito pistan (eguraldi txarrarekin frontoian).

20:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.

Banaketa, San Migel plazan.

20:00-22:00 Ken bat taldearekin musika, San Migel plazan.

22:00 Zezensuzkoa, San Migel plazan.

Sukaldaritzaren erakustaldia izanen da Olatzagutian

Bost sukaldari talde jendaurrean plater bana prestatzen hasiko dira domekan, 10:00etan. Olatzagutiko Historia Memoria parkean izanen da. Handik goiz eta eguerdian pasatzen direnek errezeten osagaiak ikusi eta eltzekoa nola prestatzen den ikusi, usaindu eta galdetzeko aukera izanen da. Horretara gonbidatu dituzte olaztiarrak. Sahara, Errumania, Peru, Ukraina eta Sirian jaiotako sakandarrak izanen dira sukaldariak. Sakana Harrera Haranakoak ere. Munduko Arrozak 13:30etik aurrera dasta litezke.

23:00 Kontzertua: Ganibet, gaztetxean.

Maisuenea Gaztetxeak antolatuta
00:00-02:00 Kustom taldearekin musika, San Migel plazan.

URRIAK 1 Igandea

11:00-14:30 Eskulangintza azoka;
Munduko arrozak: Peru, Siria, Kolonbia, Sakana Harrera Harana, Maroko, Sahara eta Errumania (Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak, Sakana Harrera Haranak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatuta udalaren laguntzarekin), eta aerografoarekin tatuaiak egitea, Memoria Historikoaren parkean (eguraldi txarrarekin Erburu

kiroldegian).

11:00 Kalejira erraldoi eta buruhandiek eta Altsasuko gaiteroekin.

13:30 Arrozen dastaketa.

17:00 Pilota, udal pilotalekuan: 4 1/2:

Nazabal / Bustinza

Victor – Bergera /

Retegi Bi – Merino II

19:00-21:00 La Cigarra

txarangarekin musika, San Migel plazan (eguraldi txarrarekin kultur etxean).

20:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.

Banaketa, San Migel plazan.

21:00 Zezensuzkoa, San Migel plazan.

www.sakanakogida.eus

Giltzaria udazkenean!

URRIAREN 1ETIK 10ERA

Sakanako merkataritza-txartelarekin egindako erosketa guztien artean, 250 euroko zozketan sartuko zara, erosketa-txarteletan

Txartelak urriaren 25ean iraugiko dira

Sakana

SAKANAKO
DenokBat, Gaiteroak, Zokorak, Txaranga

Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako jarduketa

Comarcas de Navarra
Nafarroako denokbat

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI

ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 29

UHARTE ARAKIL Meza.

San Migel eguneko meza eta aingeruari gurtza.

09:00etan, 10:00etan, 11:00etan,
12:30etan, 17:00etan eta
18:00etan, Aralarko santutegian.

IRURTZUN Tailerra.

Trontza artelan tailerra, Pikuxarrek antolatuta.

17:00etan, Gernika plazan.

IRURTZUN Bertso saioa.

Epelketa nagusia bertso saioa: Idoia Granizo Uribarrena, Aitor Irastortza Arrizurieta, Beñat Astiz Isasi, Ekain Alegre Gil, Mikel Lasarte Cia eta Endika Legarra Nuin bertsolariak; Zian Gartzia gai jartzailea, Pikuxarrek antolatuta.

17:30etan, Pikuxarreko ganbaran.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota elkartearen Nafar Eskola Jokoteko partidak.

Kimuak:

Bakeriza - Sasiain /
Mendiburu - Marroyo;
Moreno - Aldasoro / Goñi - Beraza.Kadeteen Lehen Liga:
Beltza - Gaintzarain /
Ormazabal - Erauskin.

18:30etan, kiroldegian.

ETXARRI ARANATZ Dantza erakustaldia.

Disiden.Cia konpainiaren dantza erresidentziaren *Bipedestrucción* erakustaldi irekia, DNA Dantza garaikideko programaren barruan.

18:30etan, kultur etxean.

URDIAN Film dokumentala, performancea eta solasaldia.

Latsariak. *Lavanderas* film dokumentalaren emanaldia, performancea eta solasaldia, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta.

19:00etan, auzoan.

ALTSASU Hitzaldia.

Paisaia Urbanoa, Ondare Bizia. San Pedro multzoaren eta Intxostia auzoaren eraikuntza hitzaldia, Nafarroako Ondarearen Europako Jardunaldien barruan.

19:00etatik 20:00etara, Iortia kultur gunean.

ZIORDIA Kontzertua.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIANLa voz del sol gaurkotasunezko
filmaren emanaldiaIgandea 1: 19:30
Astelehena 2: 19:00Barbie gaurkotasunezko filmaren
emanaldia
Osteguna 5: 19:00Duo Soni2 rantxerak, kunbiak, rock and roll eta abar bertsoak egiten dituen taldearen emanaldia.
20:30etan, Etxaleku tabernan.

LARUNBATA 30

ALTSASU Ibilaldia.

Paisaia Urbanoa, Ondare Bizia. San Pedro multzoaren eta Intxostia auzoaren eraikuntza ibilaldi partizipatiboa, Nafarroako Ondarearen Europako Jardunaldien barruan.
11:30etik 13:00etara, Iortia kultur gunetik.

ITURMENDI Festa.

Udazken festa antolatu du Ximonena gaztetxeak.

11:58 Herri kirolak eta haurrendako jolasak.

13:32 Triki poteoa.

14:26 Bazkaria: Entsalada, paella eta postrea (15 euro).
Ondoren, bingo musikatua.

19:03 Euskal Dantzak.

19:47 Salamankako paleta eta lote iberikoaren zozketa.

20:11 Poteoa.

UHARTE ARAKIL Bisita gidatua.

Aralarko San Migel santutegira bisita gidatua, Nafarroako Ondarearen Europako Jardunaldien barruan.
12:00etan, Aralarko santutegian.

LIZARRAGA Txalaparta saioa.

Txalaparta Hutsa – Hutsun Txalapartaren saio didaktikoa antolatu du Ergoiena Bizirik taldeak.
19:00etan, frontoian.

ALTSASU Antzerkia.

Amantis teknologia berrien eta gazteen arteko harremanari buruzko



UTZITAKOIA

ALTSASU Zelulatik pazientera. 10 urte elkarrekin lanean NavarraBiomed-en erakusketa.

Urriaren 9ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, ikuskizuna dagoen larunbatetan 18:30etik 20:00etara eta igandeetan 18:30etik 20:00etara.

antzezlanaren emanaldia, Intxostiapunta gazte gunearen gazte agendaren barruan. 18 urtetik beherako gazteak sarrera doan.
19:30etan, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN Antzerkia.

Las crónicas de Peter Sanchidrian antzezlanaren emanaldia eginen du Etxauriko antzerki tailerrak, Irurtzango Antzerki Tailerren Topaketan barruan.
20:00etan, kultur etxean.

UHARTE ARAKIL Izarren behaketa.

Izarren behaketa tailerra antolatu dute Sakanako Garapen Agentziak eta Plazaola Patzuegoak, jasangarritasun planaren barruan. Edukiera beteta.
22:00etan, Aralarko santutegian.

IGANDEA 1

IRAÑETA Mendi martxa.

Euskal Herriko Erdigunera mendi martxa, Nafarroako Mendi eta Eskalada federazioak, Euskal Mendizale Federazioak, Irurtzango Iratxo Elkartek eta Sakanako Mendizaleak taldeak antolatuta.
09:30 Irteera, Irañetako Bordatik.
11:30 Ekitaldia, erdigunean.
13:30 Pintxopoteoa, Irañetako Bordan.
14:30 Bazkaria, Irañetako Bordan.

UHARTE ARAKIL Meza.

San Migel Anaiarteko, Kofrade eta Ongileen oroimenezko meza, Gaudeamus kantu gregoriar taldeak lagunduta.
17:00etan, Aralarko santutegian.

ASTEAZKENA 4

OLAZTI Kamishibai.

Amaia eta Martin barazkien jaiak Kamishibai ipuin kontaketa izanen da, Ines Bengoa ipuin kontalariaren eskutik, Hazien Liburutegiak programaren barruan.
17:00etan, liburutegian.

HIRIBERRI ARAKIL Film dokumentala.

Cuidar entre tierras. ¿Quién sostiene la vida cuando las mujeres migran? film dokumentalaren emanaldia, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira.
19:00etan, erabilera anitzeko gelan.

OSTEGUNA 5

IRURTZUN Liburu aurkezpena.

Notitia Vasconiae. Baskoniako historialarien, legelarien eta pentasari politikoen hiztegia Juntxo Madariagak zuzendutako liburu aurkezpena, Pikuxarrek eta Arakilgo Udalak antolatuta. Ondoren, pikoteoa.
19:00etan, Pikuxarren.

Bazkide zozketa

IRAILEKO SARIDUNAK

1. SARIA

Susana Dorronsoro Artola (Altsasu)

2. eta 3. SARIAK

Josema Leiza Razkin (Arbizu)

Arantxa Tejeria Mendizabal (Etxarri Aranatz)

M. Josefa Gurmindio Lizarraga (Olazti)

Er^viti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioeserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Azkartasun handiko zerbitzua

ALTSASU Urteurrena.

Altsasuko Gaztetxearen 33. urteurrenaren ospakizunen txupinazioa.
19:00etan, gaztetxean.

OSTIRALA 6**LAKUNTZA Hitzaldia.**

Indarkeria matxistaren aurrean, zer? Sakanako Itaiaren hitzaldia.
18:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Etxera txozna.

Plazan.

20:00 Kontzentrazioa.

20:30 Pintxo potea.

21:00 Bertso saioa: Ion Maia eta Unai Iturriaga.

IRAGARKI SAILKATUAK**LANA/NEGOZIOAK****ALOKAGAI**

Altsasun 'Coworking' bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatze bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta office-a ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

IKASTAROK

Irurtzango Udalak helduentzako ikastaro eskaintzan izen ematea zabalik: Antzerki tailerra, irakurketa taldea, marrazketa eta pintura, hipopresiboak, Pilates, aerobik, GAP/bizkortzea, kirol entrenamendua, gorputz jarrera eta spinning. Aukeratu eta izena eman irailaren 27a baino lehen www.irurtzun.eus web orrian edo Udaletxean matrikula ordaindu eta formularioa bete behar da bi kasuetan. Lehenetsuna errotatuek izango dute. Informazio gehiago kulturetxea@irurtzun.eus idatziz, udaletxean edo web orrian.

Mank-ek Kirol egokitu-ian igeriketa eta soinketa ikastaroak antolatu ditu: Igeriketa, astelehenetan, Arbizuko kiroldegian 17:00etatik 18:00etara. Urriaren 2tik maiatzaren 30era izango dira biak. Soinketa, ostegunetan, Lakuntzan 16:30tik 17:30era. Izena emateko 948 464 866 telefonoan, Mank-eko

kirol zerbitzuan edo kirol@sakana-mank.eus helbidera idatziz. 50 euroko prezioa du.

OHARRAK

Lakuntzako Udalaren euskara ikasleendako dirulaguntza: Aurreko ikasturtean euskara ikasi dutenendako dirulaguntza deialdia zabaldu du. 16 urtetik gorako lakuntzarrei zuzendua. Interesa duenak www.lakuntza.eus web orrian du aurkeztu beharreko dokumentazioa, urriaren 15a baino lehen.

Bakaikuko Udalak irailaren 30ean auzolanera deitu ditu herritarrik: Aukeran bost egiteko jarri dira Launtzako gaztainadiaren garbiketa, parkeko baranda ipini, markesina margotu, frontoiko baranda margotu edo frontoi ondoko erreka garbitu. Izena emateko udalaren WhatsApp edo Telegram bidez (622 268 161), udaletxera hots eginez (948 562 509), udaletxetik pasaz, posta elektronikoko bidez udala@bakaiku.eus.

Odol emateak Olaztin: Urriaren 2an, 17:00etatik 21:00etara Sutegei kiroldegiko aretoan.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioko zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetatik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko.

Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu whatsapp mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkarteei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiko museoan bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoan ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

EZKONTZAK

• **Ainhoa Ocaña Goikoetxea eta Jon Zabaleta Renteria,** irailaren 23an Urdiainen

HERIOTZAK

- **Clemente Lopez Macias,** irailaren 5ean Altsasun
- **Encarnación Fernandez Irigoien,** irailaren 6an Altsasun
- **Florentina Cantero Marquez,** irailaren 21ean Altsasun
- **Jose Sukia Mendinueta,** irailaren 21ean Arbizun
- **Teodomira Gomez Saez,** irailaren 26an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

JARRI ZURE
IRAGARKI LABURRA!
948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak

**OROIGARRIA**

Alberto Urkijo Perez

I. urteurrena

Gurekin zaitugu

Zure familia

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo.eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZA barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📌 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Unanun joan zen urtean berritutako plaza ederrean egin zen sari ematea, helduendako eta txikiendako.

Bi anaiak eskutik helduta Unanun

ATLETISMOA Gomez anaiak elkarrekin iritsi ziren Ergoienako Birako helmugara. Haien atzetik Maite Beregaña sartu zen. Proba nagusiaren aurretik haurren lasterketak jokatu ziren, eta bukaeran auzate ederra egon zen bertan bildutako guztiendako

Maidar Betelu Ganboa UNANU Aurtan Unanuko kontzejuari zegokion XVII. Ergoienako Bira-Jose Mari Merceroen Oroimenezko 3. Sariaren antolaketara, eta goizean goiz bildu ziren bertan parte hartu zuten korrikalari heldu, gazte eta txikiak. Lehenik eta behin, txikiak eta gazte-oxoak atera ziren. Kanposanturaino joan etorria egin zuten txikiak, eta Dorraora iritsi eta buelta, aldiz, ertainek. Azken hauek arnastuka iritsi ziren, buelta ez baitzen makala.

Ordurako helduak prest ziren. Dantzaleku Sakanakoak gehienak, guztira dozena bat korrikalari inguru bildu ziren irteeran, azken urteetako partaidetza jaitzieraren tendentziaren isla. "Izan ere, Ergoienako Bira proba gogorra da. 8,5 km dira, baina 8,5 km gorabeheratsu, maldan gora eta behera ibili beharrekoak"

zieten korrikalariak. "Ez da edo-nork lasai egin dezakeen proba".

Ergoienako gorabeherak

Unanutik abiatuta, Dorraora iritsi ziren, han buelta hartu eta Unanutik pasa ziren, Lizarragarantz jotzeko. Ordurako Francisco Javier "Pitxi" eta Juan Carlos Gomez anai altsasuarrak elkarrekin zeuden buruan, eta atzetik Maite Beregaña uharterra iritsi zen. Tantaka pasa ziren korrikalariak. "Lizarragako tarte hori da okerreana, alde handiz" zioen lasterketa bukaeran Urko Rekalde lakuntzarrak. Lizarra-

"ERGOIENAKO PROBARA ETORRI BEHARRA DAGO, ETA GUSTURA, GAINERA" PITXI GOMEZ

gatik Dorraora jo zuen lasterketak, Unanuko plazako helmugara heltzeko. Txalo artean sartu ziren Gomez anaiak, eskutik helduta, Pitxi lehena (38:04). "Photo finisha beharko dugu lehena nor izan den ikusteko" zioen txapeldunak, irribarrez.

Atzetik Maite Beregaña sartu zen (38:58), sailkapen absolutuan hirugarren eta lehen emakumezkoa. Gizonezkoen podiuma Javier Mañeruk osatu zuen, sailkapen absolutuan laugarren izan zenak (41:44). Bigarren emakumezkoa Erkuden San Martin etxarriarra izan zen (44:16), sailkapen absolutuan zazpigarrena. Bukatzeko, Santi Agirre iturmendiarrak (42:42) gazta jaso zuen sari, adinez nagusia izateagatik. "Hau da sari onena" eskertu zuen. Irabazleek Unanuko kattola eta dirua jaso zuten opari, eta gainontze-koek gazta ederra.



Helduen proba hasi baino lehen, txikiak eta ertainen probak jokatu ziren.

Haurrak ere podiumera igo ziren dominak jasotzera. Guztiek bisera, metalezko ur botila eta txutxeak izan zituzten opari.

Mercero gogoan

Sari ematea baino lehen, ergoienak 2019an zendutako Jose Mari Mercero korrikalari unanuar veteranoa izan zuten gogoan. "Gure probak bere izena darama, eta beti izango dugu Joxe Mari gogoan, berak Ergoienako Biran eta inguruko lasterketa herriko guztietan parte hartzen zuelako, munduko beste txoko askotan bezala" azaldu zuten antolatzaileek, haren alaba zenari lore sorta eskaintzen zioten bitartean.

Ergoienako Bira auzate ederrekin despeditu zen. Datorren urtean, Dorraoko Kontzejuak hartuko du Ergoienako Biraren antolaketaren ardura.

Sakandarrak

Ergoienako Bira, absolutua:

Gizonak

1. Francisco Gomez	38:04
2. Juan Carlos Gomez	38:05
4. Javier Mañeru	41:44
5. Santi Agirre	42:42
6. Jose A. Salgado	42:50
8. Xabi Cuesta	44:25
9. Urko Rekalde	44:43
10. Aingeru Azazeta	48:53
11. Mikel Lizarraqa	51:59

Emakumeak

3. Maite Beregaña	38:58
7. Erkuden San Martin	44:16


Ertainak

1. Aitz Alikane
2. Aiora Resano
3. Ibai Cuesta

Txikiak

1. Adei Mozo
2. Eneko Lopez
3. Aimar Mañeru

Zer moduz Ergoienako Biran?



MAITE BEREGAÑA
KORRIKALARIA

"Bigarren aldiz aritu naiz, eta oso ongi, gustura. Ergoienako ingurunea izugarri gustuko dut; Beraingo magalak zoragarriak dira. Ergoienako Bira lasterketa oso gogorra da. Uneoro gora eta behera zabilta eta ezin duzu erritmoa hartu, baina disfrutatuta dut. Gogorra da, baina dibertigarria".



PITXI ETA JUAN C. GOMEZ
KORRIKALARIAK

"Ongi, proba polita da. Gogorra? Jartzen diozun erritmoaren arabera. Igoera ez da zelaian korrika egitea bezala, eta jaitsierak hankak zigortzen ditu, baina gustura. Geroz eta korrikalari gutxiago etortzea pena da. Sakanako proba herrikoietara etorri behar da, eta gustura, gainera."

Ingurumenagatik aldatu da Olatzagutia-Urbasa

MENDI LASTERKETAK Olaztiko mendi lasterketa Urbasa Andia Natur Parkeko babes bereziko gunean sartzen zela, eta aurten gune horretatik pasatzeko baimena ukatu zaio Sutegiri. Horregatik, larunbaterako "ibilbide berri eta erakargarria" prestatu dute

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI

"Olatzagutia-Urbasa Mendi Lasterketa egungo formatuarekin antolatzen dugun hamabosgarren urtea da aurtengoa. Urtero eskatzen ditugu beharrezko baimenak, Urbasa Andia Natur Parkea baita, eta orain arte onespina jasotzen genuen. Joan zen urtean, ibilbidea baimentzen ziguten azken aldia izango zela esan ziguten Ingurumen Departamentuan, lasterketa Urbasa Andian babes berezia duen gune batzuetatik pasatzen delako, balio ekologiko handiko guneetatik. Horregatik, aurten beste ibilbide bat prestatu behar izan dugu". Sutegi klubeko Fermin Zornozaeren hitzak dira horiek. Babes bereziko gune horretan daude, esaterako, Pagadi sorgindua, Tontorraundi... "gune horretako tontorreria guztia, finean. Gure ingurunea babesteko borondatea izan dugu beti, eta hala egin dugu".

Horrela, antolakuntzak 17,2 km eta 920 m desnibel + duen



Olaztikoak proba herrikoia izan nahi du, hori da Sutegiren helburu nagusia.

ibilbide berria prestatu du. "Ez da horren gora igotzen. Adibidez, Tontorraundi puntara igo beharrean, proba metro batzuk beharragotik pasatzen da. Halako moldaketak egin ditugu. Basozainarekin bildu nintzen, eta

haren onspena jaso eta gero Ingurumen Departamentuan baimena eskatu genuen. Ongi ikusi zuten, eta aurrera". Lasterketa antolatzeko eskatu behar diren baimenak eta bete beharreko protokoloak "itzelak dira,

askotan gogogabetzeko modukoak, baina ez dago besterik".

Herrikoia izatea

Ibilbidearen mapa eta informazio Olatzagutia Urbasa Mendi Lasterketaren webgunean dago ikusgai. "Guztiaren gainera, gure probak lasterketa herrikoia izan nahi du, bertakoek korrika egiten segi dezaten. Izar handiak etortzen ziren urteak aspaldi pasa ziren. Aurten, 100 korrikalari inguruk eman dute izena eta oso kontentu gaude".

Zornoza azaldu duenez, 70 boluntario inguru ariko dira lanean, eta beraiendako esker oneko hitzak ditu. Lasterketa 10:00etan aterako da San Miguel plazatik, eta juniorren lasterketa ere izanen da. Gainsol, Txondorren bidea, Zelai Haundi, Larrakarte, Morterutxo... paraje zoragarrietatik pasatzen da proba. "Azkarrenak ordu eta 20-30 minututan iritsiko dira. Proba jokatzeko den bitartean txikiendako lasterketak izango dira Olaztin".

Etxarriko ferietako izarra

Aurten Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorriaren 48. edizioa jokatu da. Udaberri elkarteak antolatutako proba Nafarroako Lasterketen Zirkuiturako puntuagarria da. Izena ematea zabalik dago, larunbateko 20:00ak arte. Normalean ehun korrikalari inguru animatzen dira, eta izena ematea martxa onean doa. Urteik urtera ikusmin handiagoa sortzen du probak, eta plazako helmugaratzea ikusgarria izaten da.

Garai bateko apustuei jarraiki sortutako proba igandean 11:00etan abiatuko da plazatik. Korrikalariak Barga igoko dute, eta Hartzabalena, Maiatzen buelta hartu eta jaitsierari ekingo diote, plazako helmugarantz (10 km, 557 m desnibel +). Joan zen urtean Ion Sola (46:47) eta Maria Ordoñez (51:28) gailendu ziren. Ordoñezek bi urtez jarraian apurto zuen errekorra.



Eneritz Karasatorre, helmugan.



ASPEPELOTA.EUS

Masterseko titulurako prest

PILOTA Nafarroa Arenak Caixabank Masterseko finalerdiak hartuko ditu gaur, ostirala, 21:15ean. Ezkurdia-Mariezcurrera, iazko txapeldunek, Jaka-Martija izango dituzte aurkari, eta Altuna-Imazek Peña-Rezusta. Irabazleek final handia igandean

jokatuko dute, toki berean. Rezustarekin Sanmateotako feria irabazi berri, baikor dago Ezkurdia. "Hobeki sentitzen naiz, animatuago". Martijak "giro bikaina" espero du. "Ia beteta dago dena. Ea ikuskizun polita eskaintzen dugun".



UTZITAKOA

Denboraldia gorenean bukatzeko

TXIRRINDULARITZA Igandean juniorren eta kadeteen XXVII. Indurain Anaiak Trofeoa irabazi zuen Iker Gomezek (Quesos Albeniz), esprintean azkarrena izan eta gero. Gainontzeko sakandarrek lan ederra egin zuten. Lasterketa Udazkeneko Challengerako baliagarria zen. Ekaitz Perez (Q. Albeniz) laugarren postuan dago. Larunbatean, azken proba Atarrabian.



Urbasako Igoerak lan handia du atzetik, eta Sakana Motorsporten mugimendu handiko egunak dira hauek.

Urbasako Igoerarako azken lanak lotzen

AUTOMOBILISMOA Sakana Motorsport eskuderiak urriaren 7ko Urbasako Igoerarako komisarioak eta garbiketarako boluntarioak behar ditu. Gaur itxiko da pilotuen izena ematea, eta 100 tokiak beteko direla aurreikusten da

Maider Betelu Ganboa OLAZTI
Urriaren 7an jokatu da 41. Urbasako Igoera, eta Sakana Motorsport eskuderia sakandarrarendako lan egun handiak dira hauek. Juntak hamabi kide inguru ditu, eta apirilaren 22an Olazti-Urbasa Rallysprinta bukatu bezain pronto, Urbasako Igoerarekin buru belarri hasi ziren. "Data urtea hasi baino lehen jartzen dugu, Nafarroako Automobilismo Federazioak ilbeltzean urteko egitaraua argitaratzen baitu" azaldu du Sakana Motorsporteko Iranzu Razkinek.

Urbasako Igoeraren atzean lan handia dago. "Urbasako lasterketako dokumentazio guztia prestatu behar da, Olaztiko uda-

lean, Nafarroako Gobernuan, Foruzaingoan eta bestelakoetan baimen eskaera ugari egin. Aldi berean, babesleak lotu behar dira, igoerako kartela irailan kaleratzen dugulako. Eta bestelako lanak aurreratu: aseguruak kontratatu, edukiontzia eskatu, pilotuen izena ematea ireki, segurtasun araudiak bete...

Ardurak juntako kideen artean banatzen dituzte. "Nik, bestelako lanen artean, Sare Sozialen arduraduta dut. Instagramen eta Facebooken eskuderiako albisteak eta informazioa kaleratzen dugu, eta aurten gure pilotuen lasterketen berri ematen hasi gara".

Urbasako Igoerako izena ematea gaur, irailaren 29an itxiko

da. "100 pilotuendako tokia dago, eta beti betetzen da".

Azken asteko erronkak
Segurtasuna eta ingurumena dira euren kezka nagusiak. "Urbasa Andia Natur Parkea da, eta guztia garbi-garbi utzi beharra dago. Aurten Saray elkarteak egingo du garbiketara, eta boluntarioak behar ditu. Bestalde, segurtasunerako zirkuitu guztia markatuko dugu eta zenbait gune hesitu, ikusleak bertan ez sartzeko. Lan handia da, eskerrak boluntarioak hurbiltzen zaizkigun". Komisarioak lortzea, hori da beste erronka. "30 inguru behar dira, ea jendea animatzen den" eskatu du Razkinek.



Komisarioak. SAKANA MOTORSPORT

Edozein izan daiteke komisario

Urbasako igoerako zirkuitua hainbat puntu edo postutan banatzen da, eta puntu bakoitzean komisarioak egon behar dira.

"Komisarioak lasterketako zuzendariaren begiak dira. Igoera hasi baino lehen zuzendariak komisario guztiak biltzen ditu, eta egin beharreko ildoak azaltzen dizkie: puntu bakoitzean ikusleak non jarri behar diren eta non ez; matxura edo istripu kasuetan pilotua lagundu, bandera horia atera eta *walkietatik* abisua eman behar dutela, zuzendariak igoera gelditzeko edo ez, eta halakoak".

Edonor izan daiteke komisario, eta Sakana Motorsportetik sakandarrak animatu dituzte. "30 pertsona inguru behar dira, ea egunotan lortzen ditugun".

Maider Betelu Ganboa ALTSASU
Mikel Zufiaurre Estevez altsasuarak irailaren 1ean eta 2an Europako TREC Hipika Txapelketan parte hartu zuen, Avilan, Mairu bere zaldiarekin. Azken ordura arte euren parte hartzea zalantzan egon zen, Mairuren zauri batengatik. Azkenean inolako presiorik gabe atera ziren, eta ehun zaldizkoren artean brontzezko domina lortu zuten. **Aurtengo denboraldia ona izan da. Uztaileko lehen asteburuan Espainiako TREC Hipika Txapelketa irabazi zenuten Mairuk eta biok, ezta?** Bai. Tordesillasen jokatu zen (Valladolid), eta junior mailako txapelduna izan nintzen. Horretaz gain, Nafarroako delegazioarekin taldekako txapelketan brontzea lortu nuen. Lortutakoarengatik Europako TREC Hipika Txapelketarako hautatu ninduen Espainiako selekzioak. **TREC modalitatean aritzen zara bereziki. Denbora gutxian salto handia egin duzu, lau urte inguru baitaramatzazu hipikan hasi zinetik.**

Bai, hipikak hasieratik harra-patuninduen, TREC modalitateak bereziki. TREC modalitatean hiru proba jokatzeko dira. Lehengoa orientazioa da, garrantzitsuena. Iparrorratza eta mapa eskutan, mendian orientazio proba luze bat gainditu beharra dago. Bigarren proba PAR izenekoa da, aireko proba. 150 metroko pasarela antzeko bat dago, bi marraz mugatuta. Joanekoa galopean egin behar da, eta itzuleran pauso azkarrean, baina trottera iritsi gabe. Jakina, eta bi marretatik atera gabe. Finean, doma da, aginduak eman behar zaizkiolako zaldiari; elkar ulertzea ezinbestekoa da. Azken proba PTV da, eta zirkuitu bat gainditu beharra dago: oztopoak gainditu, erreka pasa, ateren bat ireki, saltoak... halakoak.

Beraz, modalitate osoa da TREC-a, orientazioa, doma, saltoak eta bestelakoak hartzen dituena.

Bai, denetatik du. Egun batean orientazio proba jokatzeko da, luzea baita, eta hurrengoan PAR eta PTV probak.

Mairu zure zaldia da.

"EUROPAKO TXAPELKETAKO BEZPERETAN, MAIURAREN BIZKARRA LARRU BIZIAN ZEGOEN"

Askargortak eta Galarzak Nafarroako Rally Txapelketa helburu

Asteburuan XIII. Fitero Rallyea jokatu zen, maila handiko proba. 39 taldek parte hartu zuten eta horietatik 21ek lortu zuten proba despeditzea, sei eremu gogor gaindituta. Xabier Lujua eta Jesus Estrada (Hyundai i20 R5) gailendu ziren (33:58.100). Sakana Motorsporteko Iker Askargorta eta Iñigo Galarza (Opel Astra) hamabigarren sailkatu ziren (40:06.300). "Pozik

daude proba bukatzea lortu zutelako eta Nafarroako Rally Txapelketarako puntuak lortu dituztelako" azaldu du Sakana Motorsporteko Iranzu Razkinek.

Nafarroako Asfaltoko Rally Txapelketan Iker Askargorta pilotuen hirugarren postura igo da eta Iñigo Galarza kopilotuen sailkapenean hirugarren da. Hurrengo proba urriaren 14an dute, Esteribarko Rallysprinta.



Askargorta eta Galarza Nafarroako Asfalto Txapelketan hirugarrenak dira. UTZITAKOIA



Mikel Zufiaurre eta Mairu, Europako TREC Hipika Txapelketako PTV proban. UTZITAKOIA

"Azken unera arte ez genekien lehiatzerik izango ote genuen"

MIKEL ZUFIAURRE ESTEVEZ ZALDIZKOA

HIPIKA Nahiz eta Mairu bere zaldia istripua izan, Europako TREC Hipika Txapelketan brontzezko domina lortu zuen zaldizko altsasuarrak

2020an erosi genuen, eta astebe-tera konfinatu gintuzten. Kalera ateratzera utzi bezain pronto, berarekin hasi nintzen lanean, orain arte. Bikain elkar ulertzen dugu.

Mairu ez zen ongi iritsi Europako Txapelketara. Zer gertatu zitzaion? Selektzioak Europako Txapelketa jokatu baino aste bat lehenago Avilara joateko asmoa zuen, han kontzentratuta egoteko eta txapelketarako prest egoteko. Gasteizko Alberana Hipikan Mairu atoian kargatzen ari ginela, izu-

tu zen, euritan zegoelako eta haize asko zebilelako, eta atzera egin zuen, ipurdia jaitsti, eta zaldiek atzera egin ez dezaten jartzen den barra baten azpian sartu zen, bizkarra barra horren kontra arraspatuz. Larru bizian geratu

"ALBAITARIEK LAN HANDIA EGIN ZUTEN, BAINA MAIRUK TRAUMA ZUEN: EZ ZUEN INORK UKITZERIK NAHI"

zitzaion, bizkarra erre balitzaio bezala.

Albaitariak berehala artatu zuten? Kargatua zegoenez, lehenbailehen Avilara joateko esan zidan hautatzaileetako batek, han begiratu ziotela. Zorte handia dugu, gure bi hautatzaileak albaitariak ostiralarekin hasten zen, eta egun bat lehenago, ostegunarekin, zaldiek albaitarien kontrola pasa behar zuten. Gu astelehenarekin iritsi ginen Avilara eta albaitariak lanean hasi ziren berarekin; txapel-

ketari uko egin eta etxera itzultzeko tentazioa izan nuen.

Zauria handia al zen?

Ez zen larritasun handiko zauria, baina bai zauri oso mingarria, aulkia bizkar gainean jartzen delako eta Mairuk bertan zuelako zauria. Ukkitzen zenionean mina sentitzen zuen. Albaitariak laserrarekin tratatzen zuten: masajeak egiten zizkioten, erlazazioa. Asteazkenean esan ziguten Mairuk jada ez zuela minik, baina trauma geratu zitzaiola: hasieran ukitzen zenionean mina sentitzen zuenez, ez zuela inork ukitzerik nahi.

Ustez Europako Txapelketarako entrenatzen egon behar zinetenean, zuek Mairu sendatzen. Zuen parte hartzea ere kolokan zegoen.

Bai, guztiz. Baina albaitarien lehenengo kontrola ongi pasatu zuen, orientazio probaren bezperakoa, eta animatu ginen.

Txapelketan bere maila emango zuenik espero al zenuen?

Istripua gertatu baino lehen espektatiba onak nituen. Mairuk eta biok asko entrenatu genuen, eta oso ongi geunden. Beraz, aurreikuspenak oso onak ziren. Istripua gertatzerakoan ezingo ginela lehiatu pasa zitzaidan burutik. Eta, azkenean, esan nion: "Mairu, goazen ateratzera, eta proba bukatzen badugu, asko izango da". Eta pentsaera horrekin ateratu ginen.

Nola joan zen orientazio proba?

Mairuren gainera igo, eta lehenengo kilometroetan bere erreakzioak aztertzen aritu nintzen. Eta nik oso ongi ikusten nuen. Gure proba bikoteka egiten da, eta nire bikotea Espainiako selektzioko beste kide bat zen. Galdetzen nion: nola ikusten duzu Mairu? Eta erantzuten zidan: bikain, ez diot ezer arrarorik ikusten. Ba aurrera. Azkenean, bigarrenak izan ginen, lehenengoetatik puntu batera.

Hurrengo egunean, beste bi probak.

Orientazioa proba gogorra da; lauzpabost ordu dira zaldi gainean, baina zaldiari ez dizkiozu agindu gehiegi ematen, ez duzu gehiegi ukitzen. Aldiz, PAR eta PTV probatan doma agindu zehatzak eman behar dizkiozu, eta zaldia gehia-

"TXAPELKETA BUKATZERA ATERA GINEN, BAINA HIRUGARRENAK IZAN GINEN; OSO POZIK"

go ukitu behar duzu, estutu. PAREan tentsio gehiago izango zuela uste nuen, baina oso ongi ibili zen. PTVan, aldiz, oinazeren bat zuela ikusten zitzaion. Lehenengo oztopoa salto bat zen, eta hasieran gelditzeko keinua egin zuen; aginduak emateko gehiago estutu behar izan nuen, berak salta zezan. Eta gutxika aurrera egin zuen.

Hiru lanak kontuan hartuz, azkenean Europako Txapelketako brontzezkoa lortu zenuen.

Txapeldunak eta txapeldunordeak frantsesak ziren. Frantziarrak oso zaldizko onak dira, hobere-netakoak, baina gertu egon ginen: bigarrenak soilik 3 puntu atera zizkiguten, eta lehenek 11 puntu. Gertu egon ginen.

Mairuren istripua gertatuko ez balitz, hobeki ariko zinatekeela uste duzu?

Nork daki, baina Mairu ongi egongo balitz, agian lehendabiziko postuaren borrokan egongo ginatekeela esatera ausartuko naiz. Hala ere, gertatutakoaren aurrean hirugarren izan gara, eta oso pozik nago.

Familia Avilan egongo zen zu animatzen, ezta?

Bai, poz-pozik zeuden. Proba bezperan ez zekiten atera ahalko ginenik ere, eta behin aterata ere ez zuten espero horren ongi ibiliko ginenik. Emaitzak ikustera-koan zur eta lur geratu omen ziren.

Ea presiorik gabe ateratzeak on egin zizun.

Hori pentsatu nuen nik ere...

Datorren urtean Herbehereetan jokatuko den Mundialera joateko txartela lortuko zenuen.

Txapelketetan egiten ditugun puntuazioak hartzen dira kontuan, eta pentsatzen dut hala izango dela.

Mairu guztiz sendatu al da?

Bai, Europako Txapelketatik Gasteizko Alberana hipikara iristerakoan esan nion orain opor-rrak zituela (kar, kar...). Bi aste inguru egon zen atsedean hartzen, eta duela aste bat pasa hasi nintzen egunero bertara joaten. Ongi dago.

Denboraldiak nola jarraituko du? TREC-ean oporretan gaude orain, baina abenduan berriro lehiaketak hasten dira. 2 gradurekin edo 40 gradurekin tokatu izan zaigu lehiatzea, denetatik. Eta oso gustura. Selektzioarekin elkarretaratzeak egiten ditugu tarteka, han edo hemen, eta berehala martxan hasiko gara.

Sakanako Bizikleta Eguna, arrakastatsua eta bizi-bizia

TXIRRINDULARITZA Sakanako Mankomunitateak Sakanako Bizikleta Egunaren balorazio "oso positiboa" egin du, bai partaidetzaren aldetik, eta baita probaren segurtasunagatik ere. "Oso ongi joan zen dena"

Maider Betelu Ganboa SAKANA Sakanako Mankomunitateak hainbat laguntzailerekin batera antolatutako Sakanako Bizikleta Eguna arrakastatsua izan zen beste behin. 240 txirrindularik baino gehiagok eman zuten izena, eta familia osoek, gaztetxoek eta helduek parte hartu zuten Irurtzunen hasi eta Altsasun despeditu zen 37 km-ko ibilbidean, Sakanako udazken ederrari primerako ongietorria emanez.

Amia Gerrikagoitia kirol zerbizuko teknikariak primerako balorazioa egin du. "Oso ongi joan zen. Jendea, oso gustura, eta nahiz eta Irurtzundik fresko abiatu, eguraldi bikaina". Gerrikagoitiak segurtasuna nabarmendu nahi izan du. "Zein ongi zaindua eta mugatuta zegoen ibilbidea. Eskerrak Sakanako txirrindularitza klubei, Barranka Txirrindulari Taldeari, eta Aralar eta Burunda klubei".

Ohiko zauri txikiez gain, osasun langileek ez zuten aparteko lanik



Familia osoak, gaztetxo kuadrillak, helduak... parte hartzea oso zabala izan zen.

egin behar izan. Laguntza tekniko eskaini zuten Berri Bikes-eko Joaquin Beltran de Herediak eta Muruzabaleko Joxi Lazkozek, soilik unean sortutako arazoak edo pitzadurak konpondu behar izan zituzten.

Sakanako Bizikleta Eguna oso arin joan zen. "Ez zen denbora askorik galdu; 13:15erako iritsi ginen Altsasura, ordu oso onean". Datorren urtean 30 edizio beteko ditu Sakanako Bizikleta Egunak, data borobila.



Bizikleta Eguna arin joan zen, martxa onean.



Barranka Txirrindulari Taldeko kideek ibilbidea goitik behera zaindu zuten.



Sakanako Bizikleta Martxa 13:15ak aldera iritsi zen helmugara, Altsasuko plazara.

Dantzalekuko futbol zelaiko belarra aldatzeko lanak, martxan

FUTBOLA Lanek irauten duten bitartean Altsasuko futbol taldeek kanpoan jokatu dituzte txapelketetako partidak

Maider B.G. ALTSASU Dantzaleku kirol guneko futbol zelaiko belar sintetikoak aldatzeko eta argiteriaren zati bat berritzeko lanak astelehenean hasi ziren. Mondo Iberica enpresa ari da lanak egiten. Obren aurrekontua 298.961,46 eurokoa da, eta Altsasuko Udalak 253.589 euroko diru laguntza jaso du Nafarroako Gobernutik eta Nafarroako Kirolaren Institututik.

Futbol zelaian 2010 urtean jarri zen belar artifiziala, baina eremu batzuetan nahiko hondatuta dago. Belar sintetiko hori kendu eta

berria jarriko da, baina kendutakoaren zati bat, egoera onenean dagoena, Altsasuko goiko zelaian ipar ekialdean jarriko da, futbol zortzirako zelaia egiteko. Horrela, Dantzalekuk bi futbol zelai izango ditu eta aldi berean partida gehiago jokatu ahal izango dira. Bestalde, egungo argiteria eskasa da. Gaur egungo proiektoreak LED argiengatik ordezkatuko dira, eta iluntzean partidak jokatzeko aukera izango da. Lanak egiten diren bitartean partidak kanpoan jokatu dituzte Altsasuko futbol taldeek.



Lanak hilabete bat baino gehiago luzatuko direla aurreikusten da.

Altsasu, Etxarri eta Lagun Artea Preferenteko laugarren jardunaldian Altsasuk eta Gazte Berriak husna berdindu zuten. Larunbatean, Altsasuk Soto-Ibarbasoren kontra jokatu du, 18:30ean, Sanduzelain, eta urria-

ren 4an, asteazkena, festetan atzeratutako partida jokatu du Ziraukiren kontra, 16:30ean, Antxeokan.

Emakumezkoen Preferente mailan lehen jardunaldia jokatu zen. Altsasuk 0 eta 4 galdu zuen

Burladesen kontra. Igandean, 12:30ean, Altsasuk Gazte Berriak izango du aurkari Zizurren.

Erregional mailan, Etxarri Aranatzek 1 eta 2 irabazi zion Zizurri, baina Lagun Arteak 1 eta 2 galdu zuen Bete Kozkorren kontra. Larunbatean Lagunek Liceo Monjardin hartuko du 16:30ean Zelai Berrin, eta Etxarrik atsedean jardunaldia du.

Zaldua, Elomendiko liderra

Asteburuan hasi zen Elomendiko Futbol Txapelketa, "Nafarroako futbol txapelketarik herrikoiena" euren antolatzaileen esanetan. Zalduek aurreko babesle eta izen berria du, Talleres Goñi Zaldua. Talde arakildarra nahieran ibili zen, 7 eta 0 irabazi baitzion Paris 365 taldeari, lidergoa lortuz. Asteburuan Salinas taldea izango du aurkari.



Martin Los Arcos *Loops* eta Marcia Vazquez *Disiden.Cia* konpainiako dantzariak. UTZITAKOAK

Dantzarekin apurtzea

Martin Los Arcos eta Marcia Vazquez dantzariak osatzen duten *Disiden.Cia* dantza konpainiak hilabeteko arte erresidentzia egin du Etxarri Aranatzan. Emaizta gaur, ostirala, erakutsiko dute, kultur etxean: 'Bipedestrucción'

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A. Martin Los Arcos *Loops* eta Marcia Vazquez dantzariak La Faktorian, Laida Aldaz artista etxarriarrak zuzentzen duen zentro koreografikoan elkar ezagutu zuten, bertan ikasten ari zirela. "Hasieran ez genuen elkarrekin dantza egiten, baina Marciaren azken ikasturtean dantza egiten hasi ginen eta txinparta bat sortu zela ikusi genuen", azaldu du Los Arcosek. Momentu horretan Vazquez dantza erresidentzia bat egiten ari zen Caceresko herri batean, "eta bakarrik dantzatzearaz ere nekatuta nengoenez", Los Arcosi zerbait elkarrekin egitea proposatu zion. Horrela sortu zen *Disiden.Cia* konpainia eta *Bipedestrucción*-en lehenengo urratsak. "Hasiera batean hamabost minutuko pieza laburra sortu genuen, eta orain, Etxarri Aranatzan 50 minutukoa,

aretoetarako, sortzen aritu gara". Zehazki ekaineko aste bat eta iraileko hiru aste egon dira dantzariak Etxarri Aranatzko kultur etxean sortzen, eta obraren dramaturgian zentratu dira. Erresidentziarekin batera San Donato ikastetxeko seigarren mailako ikasleekin bitartekaritzak egin dituzte. "Oso esperientzia ona izan da. Oso pozik gelditu ginen". Gaur, irailak 29, ostirala, 18:30ean, erresidentziako prozesuaren erakustaldia egingen dute, kultur etxean.

"Disidentzia zentzu askotan: identitarioa eta dantzarekiko;

'BIPEDESTRUCCIÓN'
PROZESUAREN
ERAKUSTALDIA
EGINEN DU GAUR
DISIDEN.CIAK

estruturalki inposatuta dagoenarekin apurtzen saiatzen gara". Los Arcosek eta Vazquezek "dena" zalantzan jartzen dute: "estetika, dantzaren printzipioak, genero rolak...". Haien dantza estiloa "izugarria" bezala deskribatu dute: "Dena galdetzen dugunez, jaiotzean esleitu zaigun rol generoari buruz asko pentsatu dugunez, horiek apurtu nahi ditugunez, eta dantzak izan behar duen fintasun horretatik ihes egiten dugunez, guztiz kontra-koak diren mugimenduak sortzen dira, munstroen mundu batera eramanez gaitu", azaldu du Vazquezek. "Munstroak, jolasa eta orain ere hitza erabiltzen dugu". Ikuskizunean hitz egitea "erronka" bat dela esan dute biek. "Uste dugu garrantzitsua eta polita ere badela, nolabaiteko ahultasun bat ere badago. Ikustea ez dugula dena kontrolatuta, ezta

gutxiago ere". Dantzarekin "apurtzen" saiatzen dira.

Etxarri Aranatzan egotea "oso ongi" egon dela esan dute. "Kultur etxearen giltzak eman dizkigute eta hori oso ongi dago sormenak ez duelako ordutegirik. Orduan, hemen egon ahal izan gara nahi izan dugun guztia". Urrats bat gehiago eman dute, eta dramaturgia eta historia borobildu ez ezik, Laura Merchanekin eta Alexis Dafoirekin jantziteria eta musika prestatzen aritu dira, hurrenez hurren.

"*Bipedestrucción* planeta honetara iristen diren bi izaki dira. Hasieran badirudi dena aztertzen ari direla. Irudi arraro samarra dute eta orduan jendeak etengabe epaitzen ditu. Planetara egokitzeke rol desberdinetatik pasa behar dira, eta menderatuta daude: genero rola, ibiltzeko modua, mugitzeko modua... Baina hori ez da beraien gorputzean sartzen, antiorganikoa egiten zaie, eta erabakitzen dute bizirauteko modu bakarra elkarrekin egotea dela", azaldu du Vazquezek. Lanak animaliekin eta kimerekin zerikusi handia duela azaldu dute dantzariak. "Kimerak animalien konstruktioak dira eta, azkenean, izaki guztiak gara kimerak bezala, esperientzia eta identitate desberdinetatik gatoz, eta denboran zehar mutetzen eta transformatzen gaituzte".

Haurrendako dantza garaikideko lan bat da *Bipedestrucción*. "Guk ere ez dakigu nola egiten den dantza garaikidea haurrendako. Lehenengo erresidentzia jolasaren bidez inprobisatzen hasi ginen eta konturatu ginen haur alde hori ateratzen ari ginela. Haurrendako pieza bat izan zitekeela pentsatu genuen", azaldu du Los Arcosek. Gerora konturatu ziren erronka bat zela. "Egia da batzuetan arazo gehiago dagoela helduekin haurrekin baino. Lantzen ditugun gaiak kontu handiarekin lantzen ditugu". Zaila dela aitortu dute. "Mugimendua askotan ulertzeko zaila da, guretako ere; orduan, saiatzen gara ekintzekin eta

SAN DONATO
IKASTETXEKO
IKASLEEKIN
BITARTEKARITZAK
EGIN DITUZTE

hitzekin laguntzen narratiboagoa izateko". Familiarteko ikuskizun bat da, baina nerabeendako oso egokia dela esan dute dantzariak ere. "Nerabeek genero identitatearen eztabaida badute, eta interesgarria da beraiendako". Gainera, nerabeak antzokira gerturatzeko modua da ere.

Bitartekaritzak

San Donato ikastetxeko seigarren mailako ikasleekin bi bitartekaritza egin dituzte: alde batetik, marrazkien bidez pertsonaiak sortu eta karakterizatu zituzten eta, bestetik, pertsonaia horiek "mugimenduan" jarri zituzten. "Bakoitzak kimerak edo pertsonaia fantastikoak sortu zituen, izenak jarri genizkien eta hurrengo tailerrean kimerak horiek gorputzera eraman genituen mugimenduaren bidez". Tailerren ondoren solasaldia egin zuten gaztetxoekin eta "oso pozik" gelditu ziren. "*Nor zara zu?* liburua oinarri hartu genuen eta generoari buruz hitz egin genuen. Oso pozik gelditu gara oso kontzientziatuta ikusi ditugulako. Laguntzeko asmoa zuten". Haurrekin eta gazteekin egiten dituzten bitartekaritzak, Etxarri Aranatzko barne, pieza "guztiz" alda dezakete. "Gure ideia zen pieza hau ez izatea pieza eszeniko bat bakarrik, baizik eta akzio bat izatea. Lan fisikoa eta identitatearen inguruko zalantzak konpartitzen ditugu, eta *feedback*-a jasotzen dugu ere".

Nafarroako Gobernu DNA dantza garaikideko programari esker iritsi da *Disiden.Cia* konpainia Etxarri Aranatzera eta programarekin eta herriarekin "oso pozik" daude. Vazquez galiziarra da, eta egoerak aldearatu "ikusten dut ekonomikoki laguntza handi bat dagoela eta eskertzen da. Azkenean, ikuskizunaren aurretiko lan hori lana bada". Herriari dagokionez "lanetik ateratzea eta paisaia izugarri batekin topatzea, arnastu ahal izatea... Herria ere oso inspiratzailea da". "Indar handi bat" nabaritzen dela esan du Vazquezek: "Sozialki oso aktiboa da, eta egiten ari garena soziala eta politikoa ere bada, orduan, kalean gertatzen denaren gertu gaude ere". Los Arcosek, gainera, euskara praktikatu ahal izan du: "Aspaldi ez nuela euskaraz hitz egiten eta dei egiten zidan horregatik ere".

'Musikariak ikastetxean' Euskarabidearen esku

Euskara Nafar Institutuak eta Hezkuntza Departamentuak musikaren bidez euskara sustatzea helburu duen programaren kudeaketa aldatzeko hitzarmena sinatu dute; hortaz, Euskarabideak kudeatuko du 2023-2024 ikasturtetik aurrera programa

SAKANA

Euskarabideak kudeatuko du 2023-2024 ikasturtetik aurrera Musikariak ikastetxeetan programa, Hezkuntza Departamentuarekin hitzarmena sinatu ondoren. Javier Arakama Urutiaga Euskarabideako zuzendari kudeatzaileak eta Gil Sevillano Gonzalez Hezkuntzako zuzendari nagusiak sinatu zuten akordioa. Programaren bidez eskola adinean dauden artean euskara jakitea eta erabiltzea sustatu nahi dute.

Musikariak ikastetxeetan programa 2018-2019 ikasturtetik egiten den kultur programa bat



Javier Arakama eta Gil Sevillano. NG

da; programaren xede nagusia da ikasleek euskarazko musikariek esperientziak izatea, zuzeneko musika gelan bertan gozatu ahal izateko; izan ere, horrek musikari zein euskal kulturari buruzko jakintza zabaldu eta adierazpen artistiko eta kultur adierazpenari buruzko interesa sustatuko du.

Hezkuntza Departamentuak ikasturtearen amaieran jakinarazi zuen programa bertan behera utziko zuela, eta parte hartzaileek protesta egin zuten departamenduaren egoitzaren aurrean. Euskarabideak hartu du orain kudeaketa, programari jarraipena emanez.

Mugimendubaten hasieraden agurra

Enrike Zelaiak 'Zazpiak Bat' sareratu du, eta amaiera emateko 'Agur Jaunak' abestiaren bideoklipa kaleratu du. Helburua "akordeoilarismoa" sustatzea da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Duela zortzi bat urte Enrike Zelaiak akordeoilari altsasuarrak teknologia berriak baliatuta eta *Zazpiak Bat* antologiaren bidez, bere musika eta euskal kultur baloreak transmititzeko beharra sentitu zuen. 76 urterekin Joseba Salegi zinemagileak emandako zenbait jarraibiderek in diskotako abestiei irudiak jartzen hasi zen. *Nafarroa* diskoarekin hasi zen, eta laster konturatu zen ez zela nahikoa irudiak jartzearekin, baizik eta soinuari zegokion irudiak jarrita, transmititzen zuen sentimendua areagotzen zela. Horrela, pixkanaka zazpi diskoei irudiak jartzen joan zen, YouTubea igitzen zituen eta Facebook bidez mundu osora zabaltzen zuen. Diskografia irudikatze eta saretzeko prozesuaren amaiera *Agur Jaunak agur* abestiarekin bat egiten du, eta horrela bere lana borobiltzen zuen lan bat egin behar zutela pentsatu zuen Salegik: bideoklip bat.

Duela ia 30 urte, 1995ean, argitaratu zuen Enrike Zelaiak *Zazpiak Bat* diskografiaren azken alea. 1970. hamarkadako bukaeran kaleratu zuen lehenengo diskoa, eta ia hogeitaz aritu zen Euskal Herriko herrialde bakoitzeko musika jasotzen, ikertzen eta grabatzen. Aurretik, *Festival Vasco* diskoa kaleratu zuen, "oso arrakastatsua" izan zena eta 1970eko hamarkadan

irratietan eta jaialdi askotan entzuten zena.

Aurrekariak

Zelaiaren musika ibilbidea bost etapatan banatu daiteke, musikariak azaldu bezala; lehenengoa gurasoek aginduta musika ikasten hasi zenekoa da. Udal musika akademian izena eman zuen eta klarinetea jotzen hasi zen. Fase horretan solfeoarekin hasi zen ere. Baina hamar urte zituela aitak akordeoi bat erosi zion, eta soinu handia ikasten hasi zen. Herri eta folklore musika ikasten zuen batik bat. 15 urterekin Zumarragako bandako zuzendariarekin klaseak ematen hasi zen, eta berbenetako musika jotzen hasi zen, herrietan. "Funtzionatzen" zuela ikusita, bigarren fasea hasiko zuen Barzelonan: Mozart institutura joan zen. Bertan solfeo ikasketak hobetuzituen, harmonia eman zuen, konposizioa eta, batez ere, klasikoak jotzen ikasi zuen; teknikoki maila handiko partitura interpretatzen ikasi zen altsasuarra.

Musika kultura jotzen 23 urtera arte aritu zen eta tarte horretan Espainia, Europa eta Mundu mailako lehiaketetan parte hartu zuen; 1958. urtean Espainiako akordeoi saria irabazi zuen, Munduko bosgarrena izan zen eta Nazioarteko Paviako lehiaketan bigarren sailkatua izan zen. Sariak emandako ospea ba-

BAZTERRETIK

URDIAINGO LIBURUTEGIA

Udazkeneko liburu gomendioak

Eta udazkeneko gomendioak zeintzuk? Hainbeste dago aukeratzeko... Euskarazko batekin hasiko naiz: *Lumbung*; eta zergatik hau? Pasa den astean Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak antolatutako zaintzari buruzko jardunaldietan egon nintzen. Zenbat gauza interesgarri kontatu zizkiguten, besteak beste, "zaintza" zenbat esparrutatik egin daitekeen. Luzerako hausnarketarako izango da gai hau, eta horren harira *Lumbung*: munduko hainbat tokitan lan kolektiboa izendatzeko dauden moduei buruzkoa. Zazpi idazleek parte hartu dute liburu honetan, zazpi herrialdeetako idazle emakumek. Horien artean Uxue Alberdi; bakoitzak istorio bat, haren herrialdearekin zerikusia daukana.

Eta Dolores Ibarruri badakizue nor izan zen? Bada, badago Alberto Barandiaranek idatzitako biografia liburuxka bat, eta bertan irakurri ahal duzue modu arin batean *Pasionaria* nor izan zen eta zer egin zuen. Historiako klaseetan, agian gaur egun, aipatuko dira emakumeak historian eta gizartearen aldaketetan, eboluzioan, daukaten eta izan zuten parte hartzea, eta Gallartan jaiotako emakume honek izan zuen.

Gazteentzat idatzitako Miren Gorrotxategiren azken bi liburuak aipatuko ditut ere: *Lima* eta bigarrena *Lima*. **Urrezko guraizeak:** ustekabekoak, sekretuak, desagerpenak, euskal mitologia... nahasketa erakargarria, ezta?

Gaztelaraz Mercedes Guerreroren *El baile de las*

marionetas oso gustura ari gara irakurtzen Urdiainen: Bere garaian Errusiara Santurtzitik atera ziren 4.300 haur, eta fikziozko haur talde baten bizipenak kontatzen dizkigu Stalinen garaitik hasita gaur egunera arte. Ibilbide historiko interesgarria: Errusia, Kuba, Frantzia, Espainia... Gudaren krudeltasuna, botere nahiak dakarren ustelkeria, bortizkeria, sufrimendua, gosea eta aldi berean harremanen garrantzia, ematen diguten sostengua... Hau guztia enpatia sorrarazten duten pertsonaiengandik josia.

Bukatzeo, txikiekin istorioak asmatzeko liburu ederra: **Aurretik eta ondoren** Ttarttalok gurera ekarri zuena. Marrazki ederrez osatuta dago, istoriorik ez dauka eta horregatik asmatu behar dira.

liatuta, musika klasikoko kontzertuak ematen hasi zen. Baina pixkanaka hori desegiten joan zen eta Madrilen bizi zela zirkuan, irratietan, kabaretetan eta abarretan jotzen hasi zen. "Ni ez nintzen horretarako joan". Etxera itzuli behar zela, soldaduska egitera Afrikara bidali zuten, eta urte eta erdi bertan egon zen.

Altsasura itzuli zenean, akademia bat sortu zuen 1963. urtean, "nahiko arrakastatsua" izan zen. "Baina engainatuta sentitzen nintzen". Beraz, 1971. urtean akademia ixtea erabaki zuen, baina amaiera gorenean eman zion: "Espainiako Akordeoi Saria antolatu nuen Altsasun". Garai honetan ere lehenengo diskoa kaleratu zuen, euskal folkloreaken lau kanta biltzen zituen. "Jai, bizi eta hil zen inolako arrakastarik gabe". Disko horrengatik beste diskoetxe batetik deitu zuten, Bartzelonako Belterretik eta *Festival Vasco* deitutako diskoa grabatu zuen, hamabost kantekin. *Zazpiak Bat*-en hazia izanen zena.

Sentimendua

"Arrakasta izugarria izan zen". *Festival Vasco*-ren arrakasta hain handia izan zen, diskoaren azalean zihoan argazkiagatik kaletik ezagutzen zutela ere. "Loiolako Herri Irratian etengabe jartzen hasi ziren, ondoren Donostiako Herri Irratian... Aizkolari txapelketa bat bazegoen, diskoa hasieratik amaierara jartzen zuten". Musika alde batera uztea eta Altsasun zeukan tabernarekin jarraitzea pentsatzen hasi zenean, inoiz baino arrakasta gehiago lortu zuen". Zergatik izan zuen horren arrakasta handia diskoak? "Lengoaia musikalagatik. Euskal folkloreaken lengoaia musikala, hain zuzen. Sentimenduetara jotzen du, jendearengana iristen



Enrike Zelaia 'Agur Jaunak' bideoklipetan. JOSEBA SALEGI

da". Musika kultuan prestatu zenez, bere teknika oso altua zen, eta hasiera batean folklorea jotzea maila jaiste zela iruditzen zitzaion. "Baina lerro horretako errepertorio propioak egitea erabaki nuen. Partiturak existitzen ez zirenez, konposatzea erabaki nuen". Euskal Herriko leku askotako partiturak sortu zituen, herri musika oinarri hartuta.

Lengoaia propio horretatik, jendearengana iristeko beharretik, *Zazpiak Bat* sortu zuen. Diskoak grabatzen hasi behar zenean, *Festival Vasco* diskoa grabatu zuen diskoetxeak ezekoa eman zion, baina kontratua zuenez, lau urte itxoin behar izan zuen lehenengo diskoa grabatzeko. Bitartean, kontzertuak ematen zituen. Akordeoilaria, bera, eta dantzariak zeuden oholtzaren gainean. Lehenengo emanaldia, hain zuzen, Altsa-

suko Nuevo Paraiso aretoan eman zuen.

Behin diskoetxearekin kontratua amaituta 1977. urtean *Zazpiak Bat*-eko lehenengo diskoa kaleratu zuen. Sortu berri zen Donostiako estudioan grabatu zuen, eta beraiekin lau disko grabatu zituen. Baina diskoetxea itxi zuten eta diskoen jabetzearekin gorabeherak izan ondoren, azkenean lortu zuen Elkarrek, sortu berri zen diskoetxeak, lana bere gain hartzea. 1995. urtean publikatu zuen *Zazpiak Bat* disko bildumaren azken diskoa.

Akordeoilarismoa

Duela zortzi bat urte Zelaia disko bildumako musikari irudiak jartzen hasi zen, prozesu berri bat hasiz. "Diskografiaren publikazio horrekin, euskal musikaren inguruko akordeoilarismo mugimendua sustatu nahi dut. Nik

nire burua ez dut inoiz akordeoi jole bezala izendatu, ni akordeoilari naiz". Akordeoi jole batek denetarik jotzen duela azaldu du, baina akordeoilari batek euskal musika jotzen du. "Zerbait pertsonala da". Bere bizitzan zehar "barruan" izan duen zerbait izan da: "Txistularitza eta trikitalaritza dagoen bezala, akordeoirako musika propio sortzea izan da nire nahia". Soinu handiaren "mundu berri bat" sortzea. "Mugimendu bat. Falta zaidan irakasgaia da hori". Horretarako, akademitan, akordeoi elkartetan eta kontserbatorioan ere proposamena luzatu zuela esan du musikariak: "Kontzeptu horretatik aldutzen dira. Instrumentuaren mekanismoan oinarritzen dira. Musika abstraktua egiten dute".


Mugimendu hori bultzatzeko nahian eta barruan duen "aran-

tza" kendu nahian, bere musika sareetara igotzeko ideia etorri zen. "Inork egin ez duena, elkarre bakar batek egin ez duena, nik egin behar dut. Mundu osoarekin konektatzen naiz sareen bidez, eta lortu dut jendeak zuzenekoak ematen nitueneko berdina sentitzea". Musika "intentsitate" berdinarekin sentitzen dela esan du akordeoilariak. "Mundu osoko jendeak ikusten du eta zuzenean esaten didate sentitzen dutena". Helburua, betiere, "euskal kultur baloreak" bizirik mantentzea da.

Orain beste fase hori ere bukatu du: *Zazpiak Bat* disko bilduma irudiekin Internetera igo du. Joseba Salegi zinemagile altsasuarra lagun izan du prozesu honetan, berak erakutsi baitzion soinuari irudiak txertatzeko programa. Kasualitatez, antologiaren azken abestia *Agur Jaunak* zen. "Nolabait agur bat dena, eta dagoeneko argazki gehienak sartuta zeudenez, bideoklipa egitea erabaki genuen", azaldu du Salegik. Gainera, beste bideoetan ez dira ia Zelaiaren argazkiak ateratzen, eta "zaleei" gaur egungo irudia erakusteko aukera ere bazen.

'Agur jaunak'

Disko bildumaren azken abestiko bideoan Enrike Zelaia ispiluaurrean agertzen da, akordeoia jotzen. Alfredo Alvaro Igoa GUAIXEko erredaktore buruaren ideia izan zela azaldu du Salegik: "Esan zidan: Agurtzeko zergatik ez da bera berarekin eta berarendako jotzen agertzen? Berak bere burua agertzen du eta aldi berean ikusleak ikusten du nola jotzen duen". *Zazpiak Bat* disko bildumaren bideoak eta *Agur Jaunak* abestiaren bideoklipa YouTubean eta Enrike Zelaiaren Facebook-ean ikus daitezke.



Final-laurdenak

IRURITA. Urriak 7, larunbata. 17:30ean, Gizarte Bilgunean

Saioa Alkaiza Gualar, Eneko Fernandez Maritxalar, Sarai Robles Vitas, Idoia Granizo Uribarrena, Ekain Alegre Gil eta Egoitz Gorosterrazu Elizagoien

Gai-jartzaileak: Maialen Belarra Enekoaga

VIANA. Urriak 14, larunbata. 17:30ean, Kultur Etxean

Julio Soto Ezkurdia, Xabat Illarregi Marzol, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Patxi Castillo Graciarrena, Urko Gartzia Aleman eta Aitor Inastortza Arizubieta

Gai-jartzaileak: Zigor Gartzia Arregi 'Ziar'

www.bertsosale.eus

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian saigal

UHARTE. Urriak 15, igandea. 17:30ean, Arte Garaikideko Zentroan

Joanes Illarregi Marzol, Xabier Silveira Etxeberria, Mikel Lasarte Cia, Julen Zelaieta Iriarte, Beñat Astiz Isasi eta Eki Mateorena Zozala

Gai-jartzaileak: Ainhoa Larretxea Agirre

LEITZA. Urriak 21, larunbata. 17:30ean, Herri Aretoan

Eneko Lazkoz Martinez, Josu Sanjurjo Altzuri, Bittori Elizalde Soto, Endika Legarra Muin, Saats Karasatorre Martinez eta Fernando Ziganda Urdanpilleta

Gai-jartzaileak: Ander Aranburu Amiola

Antolatzailea



Laguntzailea



11 GALDERA



Max Spinu Olaztiko elizako kanpai dorrean.

"Ez kil errepika oso polita da; ezin da ohitura galdu"

Hamahiru urterekin Moldavian jaiotako Max Spinu olaztiarra Nafarroako ezkil jole gazteenetarikoa eta etorkizuna da. Duela lau urte igo zen lehenengo aldiz eliz dorrera, Anjel Herrera ezkil joleak gonbidatuta, eta dagoeneko elizaren giltzak ditu

Erkuden Ruiz Barroso OLATZAGUTIA

1 Noiz hasi zinen ezkilak jotzen?

Duela lau urte; bederatzi urterekin hasi nintzen. Bederatzi urterekin ez nengoen Kanpai-zaindarien Elkartearen barruan, oraindik ez nuelako aseguru oso gazte nintzelako. Aseguru eta abar lortu nuenean elkartean sartu nintzen.

2 Nola eta zergatik hasi zinen?

Amak taberna bat dauka eta bertan egoten nintzen. Egun batean Anjel agertu zen eta esan zidan ea nahi nuen kanpai dorre-ira igo, eliza eta dorrea erakutsiko zizkidala. Baietz esan nion igandea zenez ez nuelako ezer egiteko eta beste denbora pasa bat bezala ikusi nuen, etorri nintzen, dena ikusi nuen eta oso polita iruditu zitzaidan. Probatzea erabaki nuen. Angelika jotzen hasi nintzen, txikia. Txikia nintzenez ezin nituen handiak jo. Angelikak deitzen dira garai batean haur asko hiltzen zirelako, eta ezkil hauek jotzen

ziren haur horiek aingeru bihurtzen zirelaren seinale.

3 Nortzuk igotzen zarete?

Garai hartan beste gizon bat etortzen zen, baina gaixoa hil zen eta igotzen zen beste batek, Orestek, belauneko mina du eta ezin ditu dorreko 70 eskailera baino gehiago igo. Beraz, oraintxe bertan Anjel, ni eta aurtan etortzen hasi diren hamalau eta hamabost urteko beste bi gazte gaude.

4 Gazteak etortzera animatu dituzu?

Bai, animatu ditut. Gu jotzen ari gara orain.

5 Noiz hasi zinen ezkil handiak jotzen?

Ez kil txikienetik hasi nintzen, gero pixka bat handiago dena jotzera pasa nintzen eta duela pare bat urte handiak jotzen hasi nintzen. Handiak jotzeko beheruntz egin behar da eta gehiago kostatzen da. Aurretik probatu izan nuen, baina oso pisutsuak dira eta ezin nuen.

6 Nola ikasi duzu?

Kanpai joleek asko lagundu zidaten. Fisika kontua ere bada. Txikiak jotzeko, adibidez, badakizu bat aurrera jotzen dela eta beste atzera, orduan, pentsatu behar duzu nola arrankatu bueltak ematen hasteko. Arrankatzeko ez kila makurtuta egon behar dela azaldu zidaten eta horrela erraz eman niezaiokeela buelta, eta geroz eta urrutiago egon orduan eta errazago izango zela. Aholku txikiak ematen zizkidaten, eta pixkanaka jotzen ikasten joan naiz.

7 Melodiak ere ikasi dituzu?

Ez ditugu partiturak erabiltzen, azkenean, soinura ohitzea da, eta gero bertsioak egiten joaten zara. Belarria da, ezin da nota batekin ordezkatu.

8 Noiz egiten duzue ezkil errepika?

Errepika igandero meza dagoenean eta herrian festak dagoenean. Norbait hiltzen denean ere heriotz errepika jotzen dugu. Desberdina da. Gizonezkoa eta

emakumezkoa direnean desberdintzen irakatsi zidan Anjelek ere.

9 Zergatik gustatzen zaizu?

Lehenengo inpresioa izan zen zerbait oso polita zela, eta zenbait alditan igo ondoren kanpai joleek jarraitzera animatu ninduten. Mezara joaten hasi nintzen eta meza laguntzaile izan nintzen ere, baina denbora gehiegi eskaintzen zidan eta utzi behar izan nuen. Baina kanpi dorrera igotzen jarraitu nuen, gustatzen zaidalako. Kanpai joleak adinekoak direnez, ez zegoen jende gaztea. Animatu nintzen eta pixkanaka gazteak animatzen joan naiz. Bestela, ohitura galtzen da eta kanpai automatikoekin geldituko gara. Politagoa da eskuz jotzea. Nire ideia da jarraitzea

eta jende gehiago ekartzea. Bestela, galduko da.

10 Sakrifizioa bada?

Ez dut zeregin oso handi bat bezala ikusten. Kontrakoa. Festa bat dagoela eta jo behar dudala esaten didatenean esaten dut: "Zeinen ongi, ze gogoia igotzeko!". Oso polita da, momentua itxoitzen ari naiz.

11 Kanpoan jo izan duzue ere, ezta?

Ziordiko festetan egon ginen, Ilardura joango gara... Ikasturtean zehar klaseak ditudanez ezin naiz toki guztitara joan. Adibidez, gaur San Migel egunean goizez errepika bat egin behar zuten eta nik ezin dudanez goizez, arratsaldean etorriko naiz.

Zure argazkia hemen!

**EGUTEGI
PERTSONALIZATUAK**
 Diseinu, eredu eta formatu
 ezberdinak. Aukeratu zurea!

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gik
 DISEINUA ETA
 KOMUNIKAZIOA

f o
 619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu